

**Estebe Materre**

**DOTRINA KRISTIANA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Dotrina christiana*, Estebe Materre. Iacoves  
Millanges, 1623

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00616.htm>

# **DOTRINA KRISTIANA**

Bigarren impresioean  
debozinozko othoitz eta  
orazino batzuez berreturik.

Aita Estebe Materre  
San Franziskoren Ordenako Fraideak  
hirur partetan egina.

Bordelen, Iacoves Millanges.  
Erregeren Inprimazailearenean. 1623

# **BURU HUNEK HIRUR PARTE DITU**

Lehenbizikoan ibenuzen da Girstinoak iakin behar duen Doktrina deklarazio gabe.

Bigarrenen Doktrina haren deklarazioa galdeginez eta ihardetsiz egin.

Hirurgarrenen ezarten dira debozinozko othoitz eta Orazino batzuk bere denboretan egin eta erran behar direnak.

## **A MONSEIGNEUR**

**Monseigneur le reverendissime Clavde de Rveil Euesque de Bayonne, Conseiller du Roy en fes Conseils d'Etat et Priué, Aumosnier et Predicateur ordinaire de sa Majesté, etc.**

Monseigneur,

Voicy ce liuret escrit en Basque, et dressé pour le profit de Basques, qui se vient rendre à vous, qui estes le Prelat tres-merité de cette

nation Basque. Il vous est iustement deu, puis qu'il a esté connu dans le territoire a vostre Diocèze: et d'ailleurs comme il traicte de l'instruction spirituelle des ames, il se vient par deuoir ietter conte les bras de celuy sous et par l'auctorité du quel depart et administré le pain de la doctrine salutaire. Ce zele ardent que vous temoignez au salut de ces ames que vous sont commises, et ce foing pastoral qui vous fait employer à la visite de votre troupeau, auec tant d'affection comme un chacun sçait, me portent à croire que vous ne reietterez pas ce mien ouu-  
rage, lequel quoy que petit, et indigne de vous estre présenté, vous auez meantmoins cy-  
deuant aduoué propre et utile pour l'aduence-  
ment spirituel de ceux auxquels ie le destine: ioint que ceste affabilité gracicuse, que la nature a si viuement emprint en vostre visage, me fait esperer que vous luy ferez un accueil agreable, tant en consideration de son utilité, comme aussi pour la sincere intention de celuy qui le vous dedie. Agreez doncques ie vous supplie que son front soit honoré de vostre nom celebre, afin qu'il soit de tant mieux receu de vos diocesains

Basques qu'il sera par eux reconnu pour votre, et comme ne venant en leurs mains que par celles de leur Prelat, qui respire à toute reste le bien et salut de leurs ames. Sur l'assurance de ceste faueur te prieray ce grand Dieu qui coronne de gloire à ceux qui procurent l'accoissement de son honneur, qu'il benisse vos loüables desseins, et comble vostre ame de ses graces: et avec ce me diray en toute humilité.

Monseigneur,

Vostre tres-humble et tres-obeyssant serviteur,

F.E. Materre

## **EUSKALDUNEI**

Miretsiko duzue agian nik (Euskal-herriko ez naizelarik) Euskaraz eskiribatzeke ausartziaren hartzea. Baiña baldin konsidera ba-dadi edirenen duzue eztela gauza hunetan ausarrziarik, eta ez zer miretsirik: aitzitik bertzela egin ba-nu miretsi behar zatekeiela eta erran ahanzi zitzaitala neure eginbidea. Zeren lainkoak niri hitz-kunza hunen ikasteko enze aphur bat eman

derautanaz geroz, iduritzen zait hoben nukeiela, eta ere ezagutza gutitako eta esker gabe izanen ninzela, baldin Euskal-herrian ikasia Euskal-herriko probetxutan enplegatu ez-panu.

Ebanjelioko zerbitzari alfer hura gaztigatu zuen bere nabusiak, zeren irabazian erabiltzeko errezibitu zuen talentua eta dirua estalia eta ehortzia eduki zuen. Handik izan noiz ni ere bel-dur hala gertha zekidan, baldin Euskaraz menzatzeko ardiesi dudan talentua eta iakina arima irabazian enplegatu gabe ehortzia eta gordea edukitzen banuen. Eta etzait iduri asko dela Kadiratik predikatuz probetxu egitea baiña are uste dut eskiribuz ere behar dela enseiatu eta travaillatu.

Eta nola lanak zimendutik behar baitu hasi, eta gure salbamenduko obraren zimendua baita Doktrina Kristiana, halatan nik ere, handik hasten naizela, hartu dut gogo liburutto hunen egiteko, eta iendartera atheratzeko, hunetan (bertze erakuslerik eztenean) ikus dadin laburzki zerere sinhetsi, obratu, eta esktu behar baita; Eta gero ikus dadin halaber nola behar den Euskara eskiribatu eta irakurtu.

Gaiñerakoan badakit Euskal-Herria aňhitz moldez minzatzan direla, eta nor bere herriko Euskara zaikala hoberenik eta ederrenik. Eta handik gogoka emaitan deraut ene eskiribatzeko molde haur etzaiela guztiei ongi idurituko: baiña nahi dut iakin dezaten halakoek nek hitzkuntza hunetan dakidana Saran ikasi dudala, eta hango euskara ongi erabiltzen badut ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuiatzeko, zeren ez paitakit nik hangoa baizen. Ordea ea Sarako Euskara denz Euskal-herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen, bat-bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako Euskara hunetzaz kontent eztenak ezkiriba beza bertze Euskara hobeago batez eta hobeakiago, ez naiz ni hargatik bekaiztuko, eta ez inbidios izanen.

Finean hemen den guztia borondate on batekin lainkoaren ohoretan eta arimen probetxutan egin da: Hala beraz errezibi ezazue, eta zuen orazinoetan egin nazazue partale.



# EXAMINAZALEEN APROBAZINOA

Ikusi dut Bayonako laun Bikario Jeneralaren manuz *Dotrina Kristiana* daritzan liburu bat Aita Materrak egina, eta edireiten dut ez tuela deus ere gure Fede sainduaren kontrako gauzatik: Aitzitik dela obra bat ttipia delarik handia, hitz gutiz aÑhitz erraiten duena, ongi eskiribatua, eta merexi duena ibil dadin iendartean, eta guztien eskuetan. Saran egina Abendoraen lehenean, milla seietan ehun eta hamesei garren urthean.

P. de Axular

Ikusi dut eta irakurtu gure laun Bikario Jeneralaren manamanduaren azpian Aita Materra San Franziskoren Ordenako Fraide eta Reuleko Gadianak egin duen *Dotrina Kristiana*, eta ez tut hartan edireiten gure Fede, eta Eliza ama Katholika sainduaren kontrako gauzarik: Aitzitik iduritzen zait dela Euskaldun guztien zat probetxu handitakoa, eta hala inprimaturik argira ilkitzeko digne dela. Isatsun egina Abendoaren bortzga-

rren egunean, milla seietan ehun eta hamaseigarren urthean.

P. De Guilantena

## **IRAKURZAILEARI**

Nola bethiere aprendiz eta ikas-behar baika-ra, eta gaitz baita obra baten alde guztiz jugen nehork ezin arbuia dezakeien bezala egitea, beha egotu naiz ea zer erraiten zuten iendek nik zerbait urthute duela eskiribatu nuen girstinoaren Dotrinaz, eta ediren dut ezen batzuen artean hartzaz zebilan solhasa, eta erraiten zena zela Dotrina eta Dotrinaren deklarazioa ez elkarrekin, baiña beregainki eta bereziki bi partetan ibeni behar zirela. Bada halako hrl atsegin egi-teagatik, eta renoni ere eztela gaizkiago iduriturit berezi ditut elkar ganik, eta egin bi parte. Eta zeren aÑhitz baita Euskal-herrian irakurtzen dakienik, baiña ez Euskara baizen bertze hitz-kunzarik aditzen, halatan egin ditut halakoenzat Euskaraz debozinozko othoitz eta Orazino batzuk, goizetan, arratsetan, eta bertze aÑhitz

denboratan eta okasinotan egin eta erran ahal ditezkeienak, zeinetzaz egiten baitut hirurgarren partea, Guztiak dohazi borondate on batez eginak. Egiezu begitarte, eta errezebi itzazu nik zeurerk balira errezebi nitzan nahi zendukeyen bezala.

# LEHEN PARTEA

Giristonak iakin behar duen doktrina  
deklarazino gabe

## **PATER NOSTER**

Gure Aita zeruetan zaudena, erabil bedi sainduki zure izena; ethor bedi zure erresuma: egin bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere: Iguzu egun gure eguneko ogia; eta barka diatza-guzu geure zorrak, guk gure gana zordun direnei barkazen derauztegun bezala: eta Ez zaitzazula utz tentamendutan errortzera: aitzitik begira gaitzazu gaitzetik. Biz hala Salbatzaillea.

## **ABE MARIA**

Agur Maria, garaziaz bethea, launa da zurekin: benedikatua zara emazteen artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua, Iesus. Maria saindua, lainkoaren ama, egizu othoitz gu bekatoreok gatik, orai eta gure heriotzeko orenean. Biz hala salbatzaillea.

## **CREDO IN DEUM**

Sinhesten dut lainko Aita bothere guztia duena, zeruaren eta lurraren egilea baithan. Eta lesu-Kristo haren seme bakoitz gure launa baithan, zein konzebitu baitzen Espiritu sainduaren obraz, sorthu zen Maria Birjina gatik. Pairatu zuen Ponzio Pilatusen manuaeren azpian, kruzifikatu zuten, hil zen, eta ehorzi zuten; iautsi zen ifernuetara; iaiki zen bizirik hirugarren egunean hilen artetik; ikan zen zeruetara, iarririk dago lainko Aita bothere guztia duenaren eskuiñeko aldean; handik ethorriko da hilen eta bizien iul-gatzera. Sinhesten dut Espiritu saindu baithan, Eliza Katholika saindua, Sainduen partaletasuna, bekatuen barkamendua, haragiaren piztea, behiere iraunen duen bizitzea. Hala da salbatzaillea.

## **SALVE REGINA**

Agur Erregina miseriardiaren ama, bizitzea, eztitasuna, eta gure esperanza agur. Zure gana gaude oihuz Ebaren seme desterratuok. Zure gana gaude hatsbeherapenez, aiez, eta nigarrez nigarrezko haran hunetan. Ea bada gure ararte-

koa, zure begi miserikordiazko horiek itzul itzazu gure gana, eta Iesus benedikatua zure sabeleko fruitua erakuts diazaguzu desterru hunen ondoran. A bihotz-bera, a urrikalmendutsua, a Maria birjina ezia.

## **IAINKOAREN MANAMENDUAK**

Iainkoaren manamendu sailduak dira hamar.

Lehenbizikoa: Iainko bat dela sinhetsirik, hura bera gauza guztien gaiñetik onhets, adora, eta zerbitza dezagula.

Bigarrena: arnegurik, zinik, edo iuramenturik banoki eta premia gabe eztagigula.

Hirurgarrena: Igandeak eta bertze bestak begira ditzagula.

Laurgarrena: geure burhasoak ohora ditzagula.

Bortzgarrena: nehor hil eztezagula.

Seigarrena: haragizko obrarik ezkontzaz kanpoan eztagigula.

Zazpigarrena: deus ebats eztezagula.

Zortzigarrena: Nehori falseriarik erauz eztaizogula.

Bederatzigarrena: bertzeren senharrik edo emazterik desira eztezagula.

Hamargarrena: lagunaren onhasunari guthizia ezkakitzala.

## **ELIZAREN MANAMENDUAK**

Eliza ama sainduaren manamenduak dira borts.

Lehenbizikoa: Igandetan eta bertze bestetan Meza osoa enzun dezagula.

Bigarrena: Urthean behin bedere kofesa gaitezila.

Hirurgarrena: Gorputz saindua Bazko-garizumakoz errezibi dezagula.

Laurgarrena: Gartha denboretan, Bijilietan, eta Garizuman (baldin traburik ezpadugu) barur gaitezila.

Bortzgarrena: Hamarren primiziak osoki paga ditzagula.

Bortz manamendu hauken gaiñera baditu Elizak bi debeku.

Bata da, Otzilare larunbatetan haragirik ez iatea.

Eta bertzea, Abendoaren lehenbiziko Igandetik Trofaniaraiño, edo Erregeen eguneraiño, eta hauste egunetik Bazko zahar arteño eztirik ez egitea, espos Mezarik ez enzutea.

## **ARTIKULU FEDEZKOAK**

Artikulu fedezkoak. Gristinoak sinhetsi behar dituenak dira hamalaur: zazpiak dira lainkoari lainko bezala ukitzen zaitzanak, eta bertze zazpiak Iesu Kristo gure salbatzaileari gizon bezala dagotzanak.

lainkoari lainko bezala ukitzen zaitzanak dira hauk.

Lehenbizikoa, badela lainko bat indar eta bothere guztia duena. Bigarrena, lainkoa dela Aita.

Hirurgarrena, lainkoa dela Seme.

Laurgarrena, lainkoa dela Espiritu saindu. Aita, Semea, eta Espiritu saindua hirur presuna eta egiazko lainko bat.

Bortzgarrena, lainkoa dela Kreatzaillea.

Seigarrena, lainkoa dela Salbatzaillea.

Zazpigarrena, lainkoa dela lorifikatzaillea.



Bertze zazpiak Iesu Kristo gure Salbatzaileari gizon bezala dagotzanak dira hauk.

Lehenbizikoa, Iainkoaren semea konzebitu zela, eta egin gizon Birjina Mariaren sabelean Espiritu sainduaren obraz.

Bigarrena, sorthu zela gelditurik Andre dana Maria erdi baiño lehen, erditzean, eta erdiz gero ere Birjina.

Hirurgarrena, kruzifikatu zutela, hil zela, eta ehorzi zutela.

Laurgarrena, iausti zela ifernuetara, erran nahi da, lurraren barreneko leku beheretara edo linboetara, eta handik athera zituela han haren ethortzearen begira zeuden arima sainduak.

Bortzgarrena, piztu zela hirugarren egunean.

Seigarrena, ikan zela zeruetara, eta iarririk dagoela bere Aitaren eskuineko aldean.

Hamalaur artikulu hauken gaiñera eman ahal ditezke oraiño bortz gehiago Kredotik atherarik.

Lehenbizikoa, badela Eliza bat, erran nahi da Giristino fidel guztien batasun bat eta konpaiña bat.

Bigarrena, Eliza hunetan badela obra on guztien partaletasuna.

Hirurgarrena, badela halaber bekatuen barkamendua.

Laurgarrena, munduaren azken finean guztiok piztu beharko dugula.

Bortzgarrena, mundu hunetako bizitzearen ondoan izanen dela bertze munduan bizitze finik eta akabatzerik izanen eztuen bat.

## **SAGARAMENDUAK**

Elizako Sagaramendu sailak dira zazpi.

1. Bathaioa.
2. Konfirmazioa.
3. Gorputz saila.
4. Penitentzia.
5. Oliadura, edo Anunzioa.
6. Ordena.
7. Ezkontza.

## **BERTHUTEAK**

Berthute printzipalak dira zazpi: eta hetarik hirurak deitzen dira Teologalak, eta laurak Kardinalak.

Teologalak dira, Fedea, Esperanza, eta Karitate.

Kardinalak dira, Prudenzia, Iustizia, Tenperantzia, eta Borthitztasuna.

## **PERFEZIONEKO KONSEILLUAK**

Perfet izaiteko konseilluak dira hirur.

1. Borondatezko probetasuna.
2. Bethiereko kastitatea.
3. Bekaturik ezten gauza guztietan obedient izaitea.

## **OBRA MISERIKORDIAZKOAK**

Obra miserikordiazkoak Giristonoak konplitu behar dituzkeienak dira hamalaur, zazpiak dira arimakoak, eta bertze zazpiak gorputzekoak.

Arimako zazpiak dira hauk.

1. Eztakienari erakustea.
2. Bekatorearen korrejitzea eta zenzatzea.
3. Beharrea dagoenari konseillu onaren emaita.
4. Tristeen konsolatzea.
5. Bidegabeen pazientki pairatzea.
6. Gaizki egilei barkatzea.

7. Bizien gatik, hilen gatik, eta gaizki ekiten derakutenak gatik othoitz egitea.

Gorputzekoak dira hauk.

1. Gose denari iatera emaita.

2. Egarri denari edatera eskentzea.

3. Erromerian dabilzanen, eta bertze beharren ostatatzea.

4. Biluzien bestitzea.

5. Erien eta garzelan daudenen bisitatzea, hautemaitea, eta konsolatzea.

6. Gathibuen libratzea eta atheratzea.

7. Hilen ehorztea.

Hauk dira hamalaur obra miserikordiazkoak: eta deitzen dira miserikordiazkoak eta ez iustiziazkoak, zeren zenbait behar ordu premiazko bertzetan, debozinozkoak eta borondatezkoak baitira, eta ez obligazinozkoak edo bortxazkoak.

## **ESPIRITU SAINDUAREN DOHAIÑAK**

Espiritu sainduaren dohaiñak dira zazpi.

1. Zuhurzia.

2. Adimendua.

3. Konseillua.

4. Borthitztasuna.

5. Iakintasuna.
6. Pietatea.
7. Iainkoaren Beldurtasuna.

## **ZORTZI DOHATSUTASUNAK**

Zortzi presuna suerte dohatsu direla erraiten du gure Salbatzailleak bere Ebanjelioan ,eta baitira hauk.

1. Gogoz eta borondatez probe direnak.
2. Presuna emeak eta mansoak.
3. Nigar egiten dutenak.
4. Iustizia gose eta egarri direnak.
5. Miserikordia egiten dutenak.
6. Bihotzez jahu direnak.
7. Presuna bakezkoak.
8. Iustizia gatik persekuzioneak eta trabai-lluak pairatzen dituztenak.

## **BEKATUEN DIFERENZIAK**

Bi bekatu suerte dira: Orijinala, eta aktuala.  
Eta aktuala: bata da mortala, eta bertzea beniala.

## **BEKATU MORTAL BURUZAGIAK**

Bekatu mortal buruzagiak dira zazpi.

1. Uguillutasuna.
2. Abarizia.
3. Haragizko bekatua, edo emakhoitasuna.
4. Inbidia.
5. Gula, edo sabel+darraiotasuna.
6. Haserretasuna.
7. Nagitasuna.

## **ZAZPI BEKATU MORTALEN ERREMEDIOAK**

Zazpi bekatu hauken kontra badira zazpi erremedio.

1. Uguillutasunaren kontra, humiltasuna.
2. Abariziaren kontra liberaltasuna.
3. Haragizko bekatuaren kontra, kastitatea, emaztetarik apart egoitea.
4. Inbidiaren kontra, onheriztea.
5. Gularen soberaniazko ian edanaren kontra, abstinenzia, neurritz iatea eta edatea.
6. Haserretasunaren kontra, dilijenzia, erne eta iratzarri izaitea.

## **ESPIRITU SAINDUAREN KONTRAKO BEKATUAK**

Espiritu sainduaren kontra direla erraiten diren bekatuak dira sei.

1. Iainkoaren miseriakordiaz etsitzea eta desesperatzea.

2. Obra onik gabe salbatuko dela uste izaitea ere presumitza.

3. Egia iakinaren eta ezagutuaren kontra ioaitza.

4. Bertzeren ontasun espiritualaz damu hartzea.

5. Bekatutan itsuturik eta gogorturik egoitea.

6. Azken finean penitenziarik egin gabe bekatu mortaletan hiltzea.

## **IAINKOAREN AITZINEAN OIHUZ MENDEKU ESKE DAUDEN BEKATUAK**

Iainkoaren aitzineari oihuz mendeku eske daudela erraiten diren bekatuak dira laur.

1. Gogoan deliberaturik, eta aitzinetik pentsaturik egiten den heriotzea.

2. Naturaren kontra egiten den haragizko bekatua.

3. Probeen gaizki tratatzea.

4. Zerbitzariei eta langilei bere soldataren eta iornalaren goratzea, eta bortxaz edukitzea.

Erraiten da laur bekatu hauk mendeku eske daudela, zeren bertze guztien artetik hain itsusiak eta zuzenaren kontrakoak baitira, non berak bere egileen kontra iaikitzen baitira.

## **BERTZEREN BEKATU UKITZEN GAITZUTENAK**

Bertzeren bekatuak bertzeren direlarik guere ukiten gaituztenak dira bederatzi.

1. Gaizki konseillatzea.

2. Gaizki manatzea.

3. Gaizki egiten narritatzea.

4. Gaizki egilearen konsentitzea.

5. Lausengatzea.

6. Gaizki egiten duenari laguntzea.

7. Gaizki egilearen alde iartzen garela haren defendatzea.

8. Gaizki egiten duela abisatu behar bidean ixilik egoitea.

9. Ez ikusi eta ez aditu egiten duela bertzeren falten disimulatzea.



Bekatu hauk berzerenak direlarik gure-ere badira, zeren partale gerthatzen baikara.

## **ARIMAREN ETSIAK**

Arimaren etsaiak dira hirur: Mundua, Deabrua, eta Haragia.

Hetarik handiena da Haragia: zeren Mundua eta Deabrua khen ditzakegu geure ganik baiña ez Haragia.

## **Laur azken finak**

Azken finak bekaturik ez egiteko gogoan eduki behar direnak dira laur.

Lehenbizikoa; Heriotzeko orena; Arimaren gorputzetik partitzean izanen den egitekoa eta herstura.

Bigarrena, Azken iudizioa geure bizi guztian egin ditugun bekatuez eman beharko dugun kontua.

Hirurgarrena, ifernua: eta han gaixtoek sekulakotz pairatu beharko duten pena eta dolorea.

Laurgarena, Parabisua, onek eta lustuek fin gabe gozatuko duten loria.

*lainkoak digula hara heltzeko  
indar dohain eta garazia.  
Biz hala.*

# BIGARREN PARTEA

Giristinoak iakin behar duen  
Doktrinaren deklarazioa,  
galdeginez eta ihardetsiz eginea

## **Giristinoaren izenaz, lehenbiziko kapitulua**

**GALDEGITEA.** Erradazu lehenbizikorik, ea Giristino zarenz.

**I HARDESTEA.** Bai, lainkoari esker.

**GALDEGITEA.** Eta nor deitzen duzu Giristino?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo launaren fedea eta legea duena, eta haren arauera bizitzen dena.

**GALDEGITEA.** Nondik heldu da Giristino izen haur?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launa ganik, zein baita lainkoaren seme, eta munduaren Salbatzaille.

**GALDEGITEA.** Eta erran baituzu Iesu-Kristoren fedea duena dela Giristino: Zertan dago prinzipalki Iesu-Kristoren fedea?

**I HARDESTEA.** Bi pontutan.

**GALDEGITEA.** Zein dira hek?

**I HARDESTEA.** Bata da Trinitate sainduaren misterioa, eta bertzea Iainkoaren Semearen Inkarnazioa.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du Trinitate hitz hunek?

**I HARDESTEA.** Iainko bat dela hirur presunatan.

**GALDEGITEA.** Eta berriz zer erran nahi du Inkarnazioa bertze hitz hunek?

**I HARDESTEA.** Hirur presuna hetarik bigarrena, zein baita Semea, haragiz beztitu zela, gizon egin, eta hil gurutzean gure salbatzeagatik.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu Iainko bat dela hirur presunatan?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut Iainkoa baithan ezte-la edireiten Iainkotasun bat, izaite bat, eta naturaleza bat baizen, zein ala baiña baitago hirur presunatan, deitzen baitira Aita, Seme, eta Espiritu Saindu.

**GALDEGITEA.** Zergatik erraiten duzu hirur presuna hek eztirela Iainko bat baizen?

**I HARDESTEA.** Zeren hirurek naturaleza berbat, izaite bat, eta bothere bat baizen ezpaitute.

## **Giristinoaren seiñaleaz, bigaren kapitulua**

**GALDEGITEA.** Zein da Giristinoaren seiñalea?

**I HARDESTEA.** Gurutze saindua.

**GALDEGITEA.** Zergatik?

**I HARDESTEA.** Zeren harekin egin baitu lainkoaren semeak gure salbamenduko bora.

**GALDEGITEA.** Nola egiten duzu Gurutzearen seiñalea?

**I HARDESTEA.** Lehenik emaiten dut eskua belarrean erraiten dudala: *In nomine Patris*. Gero bulharretan, erraiten dudala, *Et Filii*: gero ezkerreko eta eskuineko sorbaldetan, erraiten dudala, *Et Spiritus sancti*. Eta gero azkenean eskuak elkar-ganutzen ditut erraiten dudala, *Amen Iesus*.

**GALDEGITEA.** Gurutzearen seiñalearen egiteko hitz hauk latinez baitira, zer erran nahi dute Euskaraz?

**GALDEGITEA.** Erran nahi dute: Aitaren, Semearen, eta Espiritu Sainduaren izenean, biz hala Salbatzailea.

**GALDEGITEA.** Noiz edo zer okasinoetan egin behar da Gurutzeraren Seiñalea? Noiz behar da zeñatu?

**I HARDESTE A.** Goizean ohetik iaikitzean, arratsean oherakoan, etxetik ilkitzean, Elizan sartzean, orazino erraiterakoan, othurunzatzetakoan, obrari lotzerakoan, deusen periletan garenean, zenbait izialdurak hartzen gaituenean, eta finean Espiritu gaixtoak tentatzen gaituen gutietan.

## **Giristinoaren eginbideaz, hirurgarren kapitulua**

**GALDEGITEA.** Zer iakin behar du giristinoak bere eginbidearen egiteko?

**I HARDESTE A.** Doktrina Kristiana.

**GALDEGITEA.** Zer deitzen duzu Doktrina Kristiana?

**I HARDESTE A.** Iesu-Kristo gure launak arimaren salbamenduko erakutsi derauzkigun gauzen deklarazio bat.

**GALDEGITEA.** Zenbat parte ditu Doktrina hunek?

**I HARDESTEA.** Laur prinzipalenak.

**GALDEGITEA.** Zein dira hek?

**I HARDESTEA.** Artikulu fedezkoak, Orazinoak, Manamenduak, eta Sagaramenduak.

**GALDEGITEA.** Zergatik eztira laur baiño gutiago edo gehiago?

**I HARDESTEA.** Zeren Giristinoak salbatua izaitekotzat laur gauza behar baititu bere baithan eduki: Fedea, Esperanza, Karitatea, eta lainkoaren garazia. Fedezko gauzak Kredoan daunza, Esperanzazkoak Pater nosterean, Karitatezkoak hamar Manamenduetan, eta lainkoaren garaziarren ardiestekoak zazpi Sagaramenduetan.

**GALDEGITEA.** Laur gauza hautan sartzen othe da Giristinoaren eginbide guztia?

**I HARDESTEA.** Bai, zeren hautan erakusten da zer behar dugun sinhetsi, galdegin, begiratu, eta errezibitu.

**GALDEGITEA.** Zer behar dugu sinhetsi?

**I HARDESTEA.** Artikulu, fedezkoetan erraiten dena.

**GALDEGITEA.** Zer behar dugu galdegin?

**I HARDESTEA.** Orazinoetan datzana.

**GALDEGITEA.** Zer behar dugu begiratu?

**I HARDESTEA.** Iainkoak eta Elizak bere manamenduetan manatzen dutena.

**GALDEGITEA.** Eta zer behar dugu errezibitu?

**I HARDESTEA.** Elizako Sagaramendu sanduekin batean emaiten zaikun garazia.

Bada orai errepartimendu haur hunela ikusirik ditzagun deklara *Kredo, Pater noster, Abe Maria, Salbe Regina*, Manamenduak, Sagaramenduak, eta bertze gaiñerako lehenbiziko partean deklaratu gabe utzi ditugun gauzak. Eta lehenbizikorik gaitezin minza Kredoaz, zein etan baitaude Artikulu fedezkoak gure fedearen zimenduak.

## **Fedeaz, laugarren kapitulua**

**GALDEGITEA.** Zer finetako kreatu izan da gizona?

**I HARDESTEA.** Iainkoaren zerbitzatzeko, eta Parabisuko loriaren ardeiesteko.



**GALDEGITEA.** Zertaz ardiesten da Parabisukoloria?

**I HARDESTEA.** Fedezko, Esperanzazko, eta Karitatezko obrez.

**GALDEGITEA.** Zer da Fedea?

**I HARDESTEA.** Fedea da lainkoaren dohain bat zeñen bidez sinhesten baitugu lainkoa baithan, eta halaber lainkoak gure Eliza ama sainduari agertu derautzan gauza guztietan.

**GALDEGITEA.** Non daude sinhetsi behar ditugun gauzak?

**I HARDESTEA.** Kredoan laburzki bildurik, (lehenbiziko partean ezarria den bezala): zeren hartan edireiten dira artikulu fedezkoak.

**GALDEGITEA.** Nork egin du Kredoan?

**I HARDESTEA.** Hamabi Apostoluek egin zuten, eta den bezala ordenatu, eta halatan da hamabi artikuluetan errepertitua. Eta hamabi hautan sartzen da zenbait bertze ponturik ere, lehenbiziko partean erran den bezala.

Ikus dezagun bada orai zer maneraz eta nola aditzen diren Kredoan dauden artikuluak.

# **Kredoan dauden artikulu fedezkoen deklarazioa.**

## **Bortzgarren kapitulua**

**GALDEGITEA.** Erran duzu Kredoaren lehenbiziko artikuluan lainkoa baithan sinhesten duzula: zer aditzen duzu lainkoren izenaz?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut lainkoa dela laun bat guziz botheretsua, guziz ona, guziz iakinsuna, eta gauza guziten hastera eta fina.

**GALDEGITEA.** lainkoa zergatik deitzen da Aita?

**I HARDESTEA.** Zeren Trinitate sainduaren lehen presunak egundainoz geroztik enjendratzen baitu bere sustanziatik seme bat bere iduritakoa.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu lainkoa dela guziz botheretsua?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut baduela esku nahi dut guztiaren egiteko, eta bere botherearen indarrez kreatu izan dituela ezdeusetarik munduan diren gauza guztiak, zerua, lurra, ageri diren gauzak, eta ageri ez direnak ere bai.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu bigarren artikulua erraiten denean: Eta Iesu-Kristo haren seme bakoitz gure launa baithan?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut Trinitate sainduaren bigarren presuna dela Aita zerukoaren seme bakoitza, egundaiñoz geroztik haren sustanziatik enjendratua, zein baita Aitaren berdin gauza guztietan; Aita bezain ongi lainko, haste eta fin gabeko, guziz on, guziz iakinsun, Kreatzaille, Salbatzaille, eta gure laun.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu hirugarren artikulua erraiten denean: Zein konzebitu baitzen Espiritu Sainduaren obraz, sorthu zen Maria Birjina ganik?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut iainkoaren seme bakoitz hura delarik lainko egiazko, dela halaber gizon egiazko: zeren beztitu baitzen haragiz Birjina Mariaren sabelean, ez ordea gizonaren obraz baiña bai Espiritu Sainduaren berthutez, gelditzen zela haren ama erdi baiño lehen Birjina, erditzean, eta erdiz gero ere.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu laugarren artikulua, erraiten denean: pairatu zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian, kruzirikatu zuten, hil zen, eta ehorzi zuten?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launak pairatu zuela ainhitz gaitz Ponzio Pilatus Iudeako Gober-

nadoreak sententzia emanik, eta hark azota arazirik, eta aranzeko koroa buruan ezarririk, itzatu zutela gurutzean, eta hartan hil zela bere odol guztia isuririk, eta gero gurutzetik erautsirik ehorzi zutela thonba berri betetan.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu bortzgarrena, erraiten denean: lautsi zen ifernuetara, laiki zen bizirik hirurgaren egunean hilen artetik?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launaren gorputza thonban barrena zetzan bizkitartean, iausti zela haren arima ifernuetara, erran nahi da, ez kondenatuen ifernura, baiña lurraren barreneko leku behera batzuetara, zein dei baititezke linboak eta handik athera zituela han haren ethortzearen begira zeuden Sainduen arimak. Eta gero hirugarren egunean (zein baitzen Igandea) iaiki zela bizirik loria handiarekin.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu seigarrena, erraiten denean: ikan zen zeruetara, iarririk dago lainko Aita bothere guztia duenaren eskuineko aldean?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launa bizirik iaikiz geroz eginik bere Apostoluekin berrogei egun ikan zela heken buruan bera bere botherez zeru-

rik gorenera; Eta Aingeru guztiak iraganik iarri zela bere Aitaren eskuiñeko aldean; erran nahi da Aitaren berdin eta pare, Aita bezanbat loria eta ohorerekin.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu zazpigarrena, erraiten denean: Handik ethorriko da hilen eta bizien iulgatzera?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launa iauntsiko dela munduaren azken finean zerutik maiestate handiarekin; egundaiñoko gizon eta emazte guztien iulgatzera, eta batbederari emanen dioela bere obren arauaz bere merezia, onei sekulako loria, eta gaixtoei sekulako ifernua.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu zortzigarrena, erraiten denean: Sinhesten dut Espiritu saindua baithan?

**I HARDESTEA.** Sinhetsi behar dugula ezen Trinitate sainduaren hirugarren presuna dela espiritu saindua, zeñek baitu bere ethorquia Aita eta Semea ganik, gauz guztietan hekin pare eta berdin: Erran nahi da, Aita eta Semea bezain ongi dela Espiritu Saindua ere lainko, egiazko, haste eta fin gabe guztiz botheretsu, guztiz on, guztiz iakinsuri, gauza guztien Kreatzaille eta laun.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu bederatzigarrena erraiten denean, Eliza Katholika saindua?

**I HARDESTEA.** Sinhetsi behar dugula munduan dela egiazko Eliza bat, erran nahi da, Giristino fidelen biltzarre bat, konpainia bat, eta battasun bat, zeinetan sartzen baitira bathaiatu izan direnak, eta lainkoaren fedea eta legea edukiten duten guztiak.

**GALDEGITEA.** Nola diozu Eliza bat dela, munduan aiñhitz Eliza denaz geroz?

**I HARDESTEA.** Eliza erraiten dudanean ez naiz minzo harriz eta zurez eginak diren Elizez, baiña minzo naiz Eliza material hetan biltzen diren iende bathaiatuaz, fede eta lege baten azpian bizitzen denaz, zeinek egiten baitu Eliza bizia, komunzki Eliza Katholika deitzen dena.

**GALDEGITEA.** Egiazko Eliza hunen ezagutzeko markak eta seiñaleak zein dira eta zenbat?

**I HARDESTEA.** Hirur: Battasuna, saindutasuna, eta jeneraltasuna: Erran hai da, Eliza dela bat, saindu, eta guztietara hedatua.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu Elizaren batasuna?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut Giristino fidel guztiek fede bat, doktrina bat, eta Sagaramenduen partaletasun bat baizen eztutela bere artean edukitzen: Eta batasun hartan bizi direla guztiak buruzagi baten gobernuaren azpian, zein baita Erromako Aita saildua, lurrean lainkoaren lekua-  
ren edukitzaillea, eta haren egiazko Bikarioa.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu Elizaren saildutasuna, erraiten denean Eliza dela saildua?

**I HARDESTEA.** Lehenbizikorik aditzen dut Eliza dela saildu, zeren haren buruzagi ikusten eztena (zein baita lainkoa) Saildua baita; Bigarrena, zeren fedea eta legea baititu sailduak; Hirugarrena, zeren edireiten baita bethiere elizan (erran nahi da Giristinoen artean) fedez eta legez bezala obraz ere saildu denik: Halako moldezen Eliza hunetarik kanpoan Mairuen, Turkoen, eta bertze halako iendeen artean ezin dateke egiazko saildutasunik.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu Elizaren jeneraltasuna?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut Giristinoez egiten den Eliza haur munduan banatua eta barraiatua dela: baiña barraiatua izanagatik nola guztiek

baitute fede bat, lege bat, eta buruzagi bat, hala guztiek egiten dutela Ezlia bat eta Giristinotasun bat.

**GALDEGITEA.** Artikulu hunetan berean erran duzu, sinhesten duzula Sainduen partaletasuna: Zer aditzen duzu Sainduen partaletasunaz?

**I HARDESTEA.** Aditzen dut Giristino fidel guztiek badutela parte batak bertzearen orazinoetan, eta bertze obra on guztietan, nola gorputzeko mienbroek ere izaiten baitute gozo eta parte elkarren ontasunetan.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu hamargarren artikulua, erraiten denean, bekatuen barkamendua?

**I HARDESTEA.** Edeireiten dela Elizan bekatuen egiazko barkamendua Sagaramendu sainduen berthutez: halako moldez ezen nehor bekatuz bethea, lainkoarekin etsaitua, eta ifernuko penetara kondenatua egonagatik ere, bada Elizan behar den erremedio guztia.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu hamabigarrena erraiten denean, Bethiere iraunen duen bizitzea?



**I HARDESTEA.** Aditzen dut mundu hunetako bizitze bat fin gabekoa, eta onentzat ontasunez eta dohainez bethea.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du *amen* hitz honek?

**I HARDESTEA.** Leku hunetan hanbat nola, hala da egiazki, edo, hala sihesten dut nola erraiten baitut.

## **Pater Nosterraren deklarazioa, seigarren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Huneraiñokoan minzatu gara Fedeari dagotzan gauzez, orai Esperanzari uquitzen zaitzanak behar ditugu deklaratu: Eta hartarakotzat erradazu: Zer da Esperanza?

**I HARDESTEA.** Esperanza da berthute bat zeinek emaiten baiterauku fidanzia handi bat lainkoaren faborearekin batean zeruko loriaren ardiesteko.

**GALDEGITEA.** Noren baithan behar dugu geure esperanza ezarri eta eduki?

**I HARDESTEA.** Iainko egiazkoa baithan.

**GALDEGITEA.** Zer gauza uste dugu ardietsi haren ganik?

**I HARDESTEA.** Arimako eta gorputzeko behar ditugun guztiak.

**GALDEGITEA.** Zer dira behar ditugun gauza hek?

**I HARDESTEA.** Pater nosterean daunzanak, liburu hunen lehenbiziko partean ezarria den bezala: Eta orazino hartan edireiten dira gauza hek guztiak laburzki.

**GALDEGITEA.** Bada orai behar dugu *Pater Noster* haur deklaratu. Eta lehenbizikorik erradazu: Zergatik erraiten da orazino hunen hastean, gure Aita zeruetan zaudena?

**I HARDESTEA.** Erraiten da hastean guri aditzera emaitteagatik esperanza ahal dukegula ezen lainkoak enzunen gaituela geure othoitzetan, gure aita denaz geroztik.

**GALDEGITEA.** Zergatik deitzen duzu lainkoa gure aita?

**I HARDESTEA.** Zeren hura baita gure aita egiazkoa, bataz zeren hark kreatu eta munduan ezarri baikaitu; eta berriz bertzea, zeren beregainki

eta bertze guztien gainera gu Giristinoak bere seme ta bere etxeko baikadutza.

**GALDEGITEA.** Zergatik erraiten dugu zeruetan zaudena?

**I HARDESTEA.** Zeren zeruan baita munduko lekurik ohoratuen, ta ikusirik han dagoela krea-tura guztien laun eta gobernari bezala, ohore ekar diazogun.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du lehenbiziko othoitzak, erraiten denean: Erabil bedi sainduki zure izena?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du, nola lainkoaren izena baita ona eta ohorezkoa, barraia dadila izen hura fama handiarekin mundu guztitik, eta erabil dadila guztien ahoetan hain gauza sainduari dagokan ohorearekin eta erreberenziarekin.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, ethor bedi zure erresuma?

**I HARDESTEA.** Nola lainkoaren erresuma baita zeruko loria, hemen egiten diogu othoitz eman diazagula loria hura, eta egin gaitzala lehen beiño lehen bere zeruko erresumako ontasun handi hetan partale.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, Egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurtean ere?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du eman diazagula garazia eta fabore haren manamendu sainduen begiratzeko, borondatearen konplitzeko eta guztietan obedient, zeruan Aingeruak diren bezala, izaiteko.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, Iguzu egun gure eguneko ogia?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du, othoi haz gaitzala, eta eman diazagula behar dugun mantenua, hala arimakoa nola gorputzekoa. Eta arimako mantenua edo ogia de lainkoaren hitz saindua predikuetan deklaritzen dena, edo liburuetan irakurtzen duguna: Eta halaber Sagaramendu sainduak, zeren hekin batean hazten eta mantentzen da arima lainkoaren garazian. Gorputzaren ogia da zer-ere bizitzeko bianda eta bestimenda behar baita.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, Barka diatza-guzu geure zorrak, guk gure gana zordun direnei barkatzen derauztegun bezala?

**I HARDESTEA.** Hemen egiten diogu ethoitz lan-goikoari barka diatzagula geure bekatuak, guk

gaizki egiten deraukutenei barkatzen derauztegun bezala egiten derauzkiguten faltak. Eta hunetan emaiten da aditzera ezterauzkigula lainkoak guri barkatuko egiten ditugun bekatuak, baldin buk barkatzen ezpadiogu geure etsaiari egiten deraukun bidegabea.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, ez zaitzazula utz tentamendutan erortzera?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du nola baikara flako huts egiten eta erortzen errax, egiten diogu ethoitz langoikoari ezkaitzala utz tentatzera: Eta utzten gaituenean ere digula indar eta garazia tentamendu heken garaitzeko, eta biktorios gelditzeko.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, Aitzitik begira gaitzazu gaitzetik?

**I HARDESTEA.** Egiten diogu othoitz lainkoari begira gaitzala mundu hunetako gaitz, peril, fortuna, eta inkontru gaixto suerte guztietatik.

**GALDEGITEA.** *Amen* hitz hunek zer erran nahi du Euskaraz?

**I HARDESTEA.** Leku hunetan hanbat nola, hala biz, edo, hala gertha dakidala nola othoitz egiten baitut.

**GALDEGITEA.** Orazino haur nork egin da?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure Salbatzailleak, eta bere ahoaz beraz berak erakutsia.

**GALDEGITEA.** Zertako egin zuen orazino haur?

**I HARDESTEA.** Guri erakusteko zer moldez egin behar diogun othoitz lainkoari, ta zer galdegin geure othoitzetan: Zeren orazino hunek eduki-tzen du bere baithan laburzki zerere galdegin ahal baitiazaiogu lainkoari, eta hura guztia dago zazpi othoitzetan bildua: Lehen laurak ontasuna-ren ardiesteaz minzo dira, eta bertze hirurak gaitzaren eta kaltearen khentzeaz.

**GALDEGITEA.** Deklara ezazu hobekiago zer ontasun diren galdegiten ditugun laur ontasun horiek, eta halaber zer gaitz diren khendu nahi ditugun hirur gaitz horiek?

**I HARDESTEA.** Ontasunez denaz bezanbatean, lehenbiziko galdegitzen dugun ontasuna da ohora eta lauda dadin lainkoa, erraiten dugula: Erabil bedi sainduki zure izena.

Bigarrena, gure arimaren salbamendua, erraiten dugula: EThor bedi zure erresuma.

Hirurgarena, salbamenduaren ardiesteko garazia, erraiten dugula: Egin bedi zure borondatea.

Laurgarrena, garazia hunen geure baithan edukitzeko indarra eta sostengua, erraiten dugula: Iguzu egun gure eguneko ogia.

Gaitzez denaz bezanbatean lehenbiziko galdegitean erraiten diogu lainkoari khen diatzagula iragan ditzen gaitzak, zein baitira oraiñokoan egin ditugun bekatuak, erraiten dugula: Barka diatzaguzu geure zorrak.

Bigarrenean erraiten diogu begira gaitzala ethorkizuneko gaitzetarik, erran nahi du tentamenduetarik, erraiten dugula: Ezkaitzazula utz tentamendutan erortzera.

Hirurgarrenean eta azkenean othoitz egiten diogu begira gaitzala orai presenteon sentitzen ditugun gaitz guztietarik, erraiten dugula: Aitzitik begira gaitzazu gaitzetik.

# **Abe Mariaren, eta Salbe Reginaren deklarazioa. Zazpigarren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Zer orazino erraiten ohi duzu Pater nosteraren ondoan?

**I HARDESTEA.** Andre dana Mariaren salutazioa, zein deitzen baita, *Abe Maria*: Eta gero bertze orazino bat ere bai, zein baita, *Salbe Regina*, liburu hunen lehenbiziko partean diren bezala.

**GALDEGITEA.** Zergatik erraiten da Pater nosteraren ondoan *Abe Maria*?

**I HARDESTEA.** Zeren lainkoaz lekora Saindurik handiena Andre dana Maria baita, eta hanbatenarekin arartekorik ere hoberena.

Eta halatan egiten diogu othoitz ardiets diazagula bere seme launa ganik arimako eta gorputzeko behar dugun garazia eta faborea.

**GALDEGITEA.** Orazino haur nork egina da?

**I HARDESTEA.** Parte bat egin du Aingeru Gabrielekek, bertze parte bat Santa Elizabetek, ta akabatzea Eliza ama sainduak Espiritu Sainduaren konseilluz.



**GALDEGITEA.** Zergatik salutatzen dugu birjina Maria orazino hunetzaz?

**I HARDESTE A.** Zeren esperanza baitugu atsegin hartzen duela hitz hauken enzuteaz, ikusirik ezen hauk erran zeitanean beztitu zela haragiz lainkoaren semea haren sabel sakratuan.

**GALDEGITEA.** Zergatik deitzen da birjina Maria garaziaz bethea?

**I HARDESTE A.** Bataz zeren ezpaitzuen egundaiño izan bekaturik, ez eta bekaturen kutsurik ere, ez mortalik, ez benialik, eta ez are orijinalik edo ethorkizkorik ere; eta berriz bertzea, zeren nola bertze saildu guztiak baiño gaiago baitzen, hala bertze guztiek baiño abantailatukiago Espiritu Sainduaren dohaiñak eta garaziak ere izan baitzuten.

**GALDEGITEA.** Zergatik erraiten diogu, Benedikatua zara emazteen artean?

**I HARDESTE A.** Zeren egundaiño munduan izan eta izanen diren emazte guztiek baiño hark berak ohore laudorio eta ontasun gehiago baitu bere baithan.

**GALDEGITEA.** Zein da birjina Andre hunen laudoriorik eta ohorerik handiena eta prinzipalena?

**I HARDESTEA.** Amatasuna birjinasunarekin batean: zeren ezin duke abantail handiagorik lainkoaren ama eta birjina izaitea baiño.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du, Benedikatua da zure sabeleko fruitua Iesus?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du ezen Birjina bere baithan laudatzekoa dela, eta are gehiago bere fruitua ere Iesus dohain eta garazia guztiez konplitua duela.

**GALDEGITEA.** Iesus hitz hunek zer erran nahi du?

**I HARDESTEA.** Hanbat nola Salbatzaillea.

**GALDEGITEA.** Zergatik deitzen da Salbatzaille?

**I HARDESTEA.** Zeren bere Pasione sainduaren berthutez etsai gaixtoaren botheretik (bere alde-tik denaz bezanbatean) salbatu eta athera baikaitu.

**GALDEGITEA.** Deklara itzazu orai laburzki Abe Mariaren gaiñerako hitzak.

**I HARDESTEA.** Gaiñerakoak dira othoitzezkoak, nola lehenak izan baitira laudoriozkoak. Eta azken hitz hautan othoitz egiten diogu Andre dana Maria Birjinari lainkoaren ama denaz geroz, ararteko on gertha dakigula bethiere bere seme

launa gana, eta guztien gaiñetik geure heriotze-ko orenean.

**GALDEGITEA.** Erradazu orai, Nork egina da Salbe Regina?

**I HARDESTE A.** Eliza ama sainduak.

**GALDEGITEA.** Zertako?

**I HARDESTE A.** Birjina Mariaren laudatzeko, eta laudatzen dugula ararteko on gertha dakigula othoitz egiteko.

## **lainkoaren manamenduen deklarazioa, zortzigarren Kapitulu a**

**GALDEGITEA.** Fedeari eta Esperanzari dago-tzan gauzak (zein baitira artikul u fedezkoak, ta orazinoak) deklaratu ditugunaz geroz, minza gaitezin orai Karitateari dagotzanez, zein baitira lainkoaren manamendu sainduak. Erradazu bada lehenik, zer da Karitatea.

**I HARDESTE A.** Karitatea da berthute bat zeñez onhesten baitugu lainkoa gauza guztien gaiñe-

tik, eta, geure Giristino laguna geure burua bezala lainkoa gatik.

**GALDEGITEA.** Zertan ezagutzen da ea nehork lainkoa ganako karitatea eta amorioa ba-duenz.

**I HARDESTEA.** Haren manamendu sainduen begiratzean eta konplitzean.

**GALDEGITEA.** Iakin behar da bada nola aditu behar diren manamenduak; eta lehenik errada-zu, nola aditzen duzu lehenbiziko manamendua: lainko bat dela sinhetsirik hura bera gauza guztien gaiñetik onhets, adora, eta zerbitza dezagula?

**I HARDESTEA.** Bi parte ditu manamendu hunek: lehenbizikoan abisatzengaitu lainkoak hura bera dela gure egiazko launa, guk ohoratu, adoratu, zerbitzatu, eta lainkatzat (bertze guztiak utzirik) eduki behar duguna. Bigarren partean manatzen gaitu eztagigula Idolorik lehenagoko lentilek eta Paganoek bezala, zeinek egiten baitzituzten imajina batzuk, erran nahi da gizonen iduri batzuk urrez, zilharrez, zurez, harriz, eta bertze añhitz materiaz, eta hain ziren erho eta itsu ezen imajina hek (deitzen baititugu Idoloak) lainkatzat

edukitzen, eta lainko bezala adoratzeko eta oho-  
ratzeko baitzituzten.

**GALDEGITEA.** Sainduen imaginak Elizan eduki-  
tzea, eta hei belhaurikatzea, manamendu hunen  
kontra othe da?

**IHARDESTEA.** Ez segur: Zeren badakigu imaji-  
na hek zurez edo harriz eginak direla, eta hek  
berek ez tutela bere baithan berthuterik, eta ez  
indarrik gure faboratzeko: Baiña nola zeruan  
dauden Saindu egiazkoez orhoit arazitzen bai-  
kaituzte, eta heken iduria representatzen bai-  
teraukute, eta representatze edo orhoitze hark  
debozinoa berretzen eta iratzartzen baiterauku,  
halatan iratzarzaille, orhoitzaille, eta egiazko  
Sainduen representatzaille bezala ohoratzen eta  
adoratzen ditugu imajinak.

**GALDEGITEA.** Nork egiten du huts lehenbiziko  
manamendu hunen kontra?

**IHARDESTEA.** Paganoek, Heretikoek, Supersti-  
ziosek, eta guztiz-ere Sorginek.

**GALDEGITEA.** Sorginak zer iende dira, eta nola  
egiten dute huts lehenbiziko manamendu hunen  
kontra?

**I HARDESTEA.** Sorginak dira iende thailu batzuk zeñek (diotenez) arnegatzen baitute bere egiazko lainkoaz, fedeaz, legeaz, errezibitu duten Bathaioaz, Aita-amaz, eta Elizako gauza guztiez: eta gero hartzen dute bere iaun eta nabusi deabrua, adoratzen dute, zerbitzatzen dute, eta haren borondatearen arauaz (bera laguntzen zaiela) egiten dute ahal dagiten gaizki guztia, guztiz ere haurretan, eta lurreko fruituetan. Eta halatan hek dira munduan diren ienderik gaixtoenak, lainkoz eta munduz erratzea merezi dutenak.

**GALDEGITEA.** Superstiziosek nola edo zertan huts egiten dute?

**I HARDESTEA.** lainkoak eta haren Elizak ordenaturik eta errezibiturik dadutzan zirimoniez, orazinoez, eta erremedioez ez contentez eta ez fidaz, bertze zirimonia, orazino, eta erremedio molde batzuetara laster egiteaz, eta heken usatzeaz.

**GALDEGITEA.** Heretikoek nola egiten dute huts?

**I HARDESTEA.** Fede bat, lege bat, Eliza bat, eta Elizaren buruzagi bat baizen eztelarik (zein baita

Erromako Aita saindua) hek hura ukhaturik, fedea eta legea bere anzu, bere borondatera eta libertatera behar ezten bezala deklaritzen baitituzte.

**GALDEGITEA.** Paganoek nola egiten dute huts?

**I HARDESTEA.** Iguzkia, Ilhargia, urrez edo zilharrez eginikako figurak lainkotzat hartzen eta adoritzen baitituzte, iduriturik ezen hek direla egiazko lainkoak.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu bigarren manamendua, Arnegurik, zinik, edo iuramenturik banoki eta premia gabe eztagigula?

**I HARDESTEA.** Zin edo iuramentu egitea nola baita lainkoa gure erranaren lekhuko ekhartzea, aditzen dut zina egin behar dela ezin bertzez (midizina hartzen den bezala) ez premia gabe, ez gezurraren gaiñean, ez gaizki egiteko kon-tuan, ez eta ez konplitzeko borondatearekin ere.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu hirugarrena, Igandeak eta bertze Bestak begira ditzagula?

**I HARDESTEA.** Eztela astelegunetan bezala lanean eta traillaian ibili behar Bestetan, baiña behar dela ioan elizara Meza, besperak, eta bertze elizako ofizioak enzun; debozinotan eta obra

onetan enplegatu, aste guztiko bekatuez barkamendu eskatzen garelara, eta aitzinerat erortzetik begira gaitzala lainkoari othoitz egiten diogula.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu laurgarrena, geure burhasoak ohora ditzagula?

**I HARDESTE A.** Aditzen dut geure Aita-amak gauza iustu guztietan obeditu behar ditugula, kortesia handiarekin minzatu behar gatzaitzela, eta are gehiago beharrean daudenean faboratu behar ditugula, ahal dagigun lekuraiño: zeren lainkoaz lekora hetarik, baitugu mundu hunetako bizitzea eta izaitea, eta pena handirekin hazi bai-kaituzte. Halaber aditzen dut ohoratu eta obeditu behar ditugula geurok baiño zaharragoak, eta Eliza-gizonak, eta kargutan diren guztiak, hala espiritualekoak nola tenporalekoak.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu bortzgarrena, Nehor hil eztezagula?

**I HARDESTE A.** Aditzen dut eztugula nehor hil behar, eta ez kolpatu edo zehatu ere: eta are gehiago eztiogula nehoari eduki behar gaitzerizkorik, borondate gaixtorik eta ez egin liskarrik, eta ez kalterik ere.



**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu seigarren manamendua, haragizko obrarik ezkontzaz kanpoan eztagigula?

**I HARDESTE A.** Aditzen dut presuna ezkonduak baduketela elkarrekin parte eta ezagutza: baiña ezkonduak ez tirenen arteko haragizko obrak, eta are ghiago besarkak, musuak, eta bertze desonheski hukitze guztiak ere bekatu direla.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu zazpigarrena, deus ebats eztezagula?

**I HARDESTE A.** Aditzen dut Bertzeren onik eztugula ebatsi behar, eta ez iabearen borondatearen kontra eduki. Eztugula halaber kontuan, pisuan, neurrian, sal-erosietan, abenikoetan, eta bertze hartu-emanetan falseriarik edo enganamendurik egin behar, ez eta nekazaleen edo zerbitzarien iornalik edo soldatarik ere goraturik eta bortxaturik eduki.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen duzu zortzigarrena, Nehori falseriarik erauz eztiagogula?

**I HARDESTE A.** Aditzen dut eztugula nehor falsoki akusatu ehar, eztiogula fama gaixtorik edo desohorerik geure mihi az nehor eman behar: eztugula gezurrik erran behar, ez maradizionerik

egotzi, eta ez eskarniorik egin. Finean nola nahi bai-tugu bertzeak gutzaz minza ditezin, hala guk ere bertzeez behar dugula minzatu.

**GALDEGITEA.** Nola aditzen dituzu bederatzi eta hamargarren manamenduak, bertzeren senharririk edo emazterik desira eztezagula; eta, lagunaren onhasunari guthizia ez-zakitza?

**I HARDESTEA.** Bi manamendu azken hautan aditzera emaiten zaiku ezen gaizki obratzea bezala gaizki desiratzea ere bekatu dela, eta lainkoak kanpoko obra bezain ongi barreneko guthizia ikusten duela. Eta nola seigarren eta zazpigarren manamenduetandebekatu baitzi-tuen haragizko obrak, eta bertzeren onen edukitzeak, orai bederatzigarrenean, eta hamargarrenean bi gauza heken desirak eta guthizia debekatzen ditu.

**GALDEGITEA.** Hamar manamenduak hunela deklaratu ditugunaz geroz, erradazu orai: Nork eman ditu hamar manamendu hauk?

**I HARDESTEA.** lainkoak berak eman zituen lege zaharrear, eta gero Iesu-Kristo gure launak konfirmatu eta ontzat eduki ditu lege berrian.

**GALDEGITEA.** Laburzki minzatzera zer edukitzen dute bere baithan manamendu hauk?

**I HARDESTEA.** Zer-ere egin behar bai-ta lainkoaren eta Giristino lagunaren alderakotzat. lainkoaren alderatkoa lehenbiziko hirur manamenduetan da, eta Giristino lagunarekikoa azken zazpian.

**GALDEGITEA.** Deklara ezazu nola?

**I HARDESTEA.** lainkoaren alderakotzat egin behar diren gauzak hauk dira: lainkoa behar dela oharatu eta zerbitzatu; haren izen saindua ezte-la banoki erabili behar; eta Igandea ongi eta sailduki behar dela begiratu. Eta hirur gauza hauk daude lehen hirur manamenduetan. Gero Giristino lagunaren alderakotzat egin behar diren gauzak dira hauk: dagotenei ohore emaita, nehoi bere presunan eta onetan hitzez, gogoz, eta obraz ere kalterik ez egitea: Eta gauza gauk azkeneko zazpi manamenduetan dauntza.

**GALDEGITEA.** Zertzaz konplizen dira hamar manamendu hauk?

**I HARDESTEA.** Karitateaz eta amorioaz. Eta halatan erraiten du gure Salbatzailleak, lege guztia bi pontutan dagoela.

**GALDEGITEA.** Zein dira bi pontu hek?

**I HARDESTEA.** Iainkoaren onhestea gauza guztien gaiñetik, eta gero geure Giristino laguna geure burua bezala.

**GALDEGITEA.** Lege guztia bi pontu hautan dagoenaz geroz zergatik ibentzen dira hamar manamendu?

**I HARDESTEA.** Guri beheroki erakusteagatik nola eta zer gauzatan behar diren Iainkoa eta Giristino laguna onhetsi: Zeren baldin bide bezalla Iainkoa onhesten badugu, zerbitzatuko ere badugu, eta bai haren izen saindua ohoratuko, eta Igande-eguna ere sainduki begiratuko: Eta berriz bertze alde, baldin geure Giristino laguna ongi ohesten badugu, falta gabe ohoratuko ere dugu, eztugu hilen, eztiogu kalterik eginen, eztiogu deus ebatsiko, ezta haren kontra minzatu, eztugu haren emazteren eta ez onen ere gutizia gaixtorik izanen; finean geuretzat bezala haren alderakotzat ere gobernatuko gara.

**GALDEGITEA.** Manamendu hauk begiratu gabe ahal dohake nehor Parabisura?

**I HARDESTEA.** Ez: hauk behar ditu begiratu eta konplitu Parabisura ioan nahi duenak, zeren bertze biderik ez-paita.

## **Elizako sagaramenduen deklarazioa. Bederatzigarren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Fedeari, Esperanzari, eta Karitateari dagotzan gauzak (zein baitira artikulu fedezkoak orazinoak, eta manamenduak) deklaratu ditugunaz geroz, behar dugu orai lainkoaren garaziaren ardiesteko gauzez minzatu. Erradazu bada, lainkoaren garaziaren ardiesteko, eta ardiestsiz gero haren geure baithan edukitzeko zer gauza behar ditigu errezibitu?

**I HARDESTEA.** Elizako Sagaramendu sainduak.

**GALDEGITEA.** Zer da Sagaramendua?

**I HARDESTEA.** Seiñale bat kanpotik ageri dena, zeinek barrenean emaiten baitu lainkoaren garazia ageri eztena.

**GALDEGITEA.** Erran baita lehenbiziko partean ezen Bathaioa dela lehen Sagaramendua: Zer erran nahi du Bathaioa hitz hunek?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du garbitzea, ikuztea, jahutzea: eta handik du bere izena zeren Bathaioak garbitzen du arima bekatu orijinaletik, eta are gehiago bethatzen du lainkoaren dohaiñez eta garaziaz. Orduan sartzen gara Elizan, eta egiten gara lainkoaren seme adoptibo, ta gai Parabisuko loriaren ardiesteko.

**GALDEGITEA.** Bigarren Sagaramenduaren izenak, zein baita Konfirmazinoa, zer erran nahi du, eta zer egiten du gure baithan?

**I HARDESTEA.** Erran nahi du hanbat nola fermu eta finko ezartea: Eta handik du bere izena, zeren bathaiatuei berretzen deraue lainkoaren garazia, eta emaiten deraue etsai aixto guztien kontrako fermutasun handi bat, eta are Fede sainduaren mantentzeko, eta lainkoagatik biziaren (behar ba-da) emaiteko esportzua eta ausartia.

**GALDEGITEA.** Zer egiten du gure baithan hirurgarren Sagaramenduak, zein baita Gorputz saindua?

**I HARDESTEA.** Emaiten derauku lainkoaren garazia, eta berretzen karitatea, zein aita gure arimaren bizitze egiazkoa.

**GALDEGITEA.** Zer sinhesten duzu Gorputz sainduaz?

**I HARDESTEA.** Sinhesten dut ogiaren eta arnoaren iduriaren azpian daudela egiazki ta errealki Iesu-Kristo gure launaren gorputz sakratua, eta odol preziatua.

**GALDEGITEA.** Nola edo zer moldez egiten da hori horrela?

**I HARDESTEA.** Gure Salbatzailleak Ortzegun saindu arratsean bere Apostoluekin afaritan zegoela erran zituen hitz batzuk erraiten dituztenean Apez ordenatuek, hitz heken berthutez ogia egiten da Iesu-Kristoren gorputz, eta arnoa odol. Lehen ogia eta arnoa ogi eta arno ziren: baiña Apezak konsekratzeko hitzak erranez gero, ezta ogirik eta ez arnorik, baiña da Iesu-Kristoren odol bizia, eta gorputz preziatu bizia dibinitatearekin iuntatua, hain egiazki eta erreal-

ki nola baitago zeruan bere Aitaren eskuiñeko aldean.

**GALDEGITEA.** Sagaramendu saindu haur Mezan konsekratzen baita, Zer sinhesten duzu Mezaz?

**I HARDESTEA.** Sinhesten dut Meza dela Sakrifizio guztien gaiñeko sakrifizioa, zeinetan Iesu-Kristoren gorputz preziatua oferendatzen baitzaio Iainko Aita zerukoari, Iesu-Kristo beraren pasionearen orhoitzapenetan, gure bekatuen barkamendutan, eta halaber hilen eta bizien faboretan.

**GALDEGITEA.** Zer da Penitenzia, zein baita laugarren Sagaramendua?

**I HARDESTEA.** Penitenzia da har den bidean behar den kondizinoekin egiten den Kofesinoa.

**GALDEGITEA.** Zer kondizino dira hek?

**I HARDESTEA.** Bihotzezko urrikimendua, hitzezko Kofesinoa, eta obrazko satisfazinoa.

**GALDEGITEA.** Hirur gauza hauk behar othe dira Sagaramendu hunen bidezki erezibitzeko?



**I HARDESTEA.** Bai, zeren nola bekatua egiten baita hitzez, gogoz, eta obraz hala erremediatu ere behar da hitzez, gozo, eta obraz. Lehenbizikorik behar dugu gure bekatuez bihotzeko urrikimendua, ez gehiago bihurtzeko borondate fermuarekin: gero ahoz behar ditugu hek erran, eta osoki kofesatu, kofesatzeko lizenzia duen Kofesor batekin: eta gero Kofesorak ordenatzen derauzkigun satisfazinoak edo penitenziatzko obrak behar ditugu osoki eta debotki konplitu.

**GALDEGITEA.** Hunela egiten den Penitenziak zer obratzen du gure baithan?

**I HARDESTEA.** Barka arazten derauzkigu han arteraiño egin ditugun bekatu guztiak, eta ezarten gaitu lainkoaren garazian eta adiskidetasunean.

**GALDEGITEA.** Bortzgarren Sagaramenduak (zein baita Anunzioa) zer ontasun egiten derauku?

**I HARDESTEA.** Erienzat nola ordenatua baita, hei barka arazten derauzte bekatuen hondarrak leneheko Sagaramenduei orhoitu gabez, iakin

gabez, edo bertzela azkengu zaiztenak. Halaber emaiten deraue indar heriotzeko orenean deabruaren tentamenduen garaitzeko, eta finean gorputzeko osasuna emaiten deraue, baldin arimakotzat, behar badute.

**GALDEGITEA.** Seigarren Sagaramenduak (zein baita Ordena) zer egiten du?

**I HARDESTEA.** Eliza-gizonei emaiten eraue esku Elizako zerbitzuaren egiteko, eta iendei Sagaramenduen emaiteko.

**GALDEGITEA.** Zazpigarren Sagaramenduak (zein baita Ezkontza) zer egiten dur?

**I HARDESTEA.** Elizako ordenanzen arauaz ezkontzen direnei emaiten deraue garazia eta fabore bakean eta amorioan elkarrekin bizitzeko, haur izaiteko, eta heken hazteko lainkoaren bel-durtasunean.

**GALDEGITEA.** Zazpi Sagaramendu hauk nork ordenatuak dira?

**I HARDESTEA.** Iesu-Kristo gure launak, mundu hunetan ibili zenean.

**GALDEGITEA.** Zertako dira?

**I HARDESTEA.** Guk hekin batean lainkoaren dohaiñen eta garazien ardiesteko, eta ardietsirik geure arimen salbatzeko.

## **Zazpi berthute prinzipalen deklarazioa.**

### **Hamargarren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Akhabatu ditugu gure Doktrina kristianaren laur parte prinzipalenak, zein baitira Artikulu fedezkoak: Orazinoak, Manamenduak, eta Sagaramenduak, eta erakutsi nola Artikulu fedezkoak behar ditugun sinhetsi, Orazinoetan dauntzan gauzak galdegin, lainkoaren eta Eliza sainduaren manamenduak begiratu, eta Sagaramenduak errezibitu: Orai berthute prinzipalenez eta bertze gaiñerako lehenbiziko partean deklaratu gabe utzi ditugun gauzez behar dugu minzatu. Eta lehenbizikorik erradazu zer da berthutea?

**I HARDESTEA.** Berthutea da arimaren ontasun bat zeinek presuna egiten baitu on lainkoaren eta munduaren aitzinean.

**GALDEGITEA.** Berthute prinzipalenetarik hirurak zergatik deitzen dira Theologalak?

**I HARDESTE A.** Theologal hitz hunek erran nahi du hanbat nola lainkoari ukitzen zaikana, lainkoari dagokana, eta behatzen dioena. Eta nola hirur berthute hek Fedeak, Esperanzak, eta Karitateak lainkoari behatzen baitiote, eta haren alderat enplagatzen baitira hargatik deitzen dira Theologalak.

**GALDEGITEA.** Eta bertze laurak zergatik deitzen dira Kardinalak?

**I HARDESTE A.** Kardinal hitz hunek erran nahi du prinzipala, erroa, ithurburua: Eta nola laur berthute Prudenzia, Iustizia, Tenperanzia, eta Borthiztasuna baitira bertze berthute guztien erroak eta zimenduak, eta guztietako prinzipalenak, hargatik deitzen dira Kardinalak.

**GALDEGITEA.** Deklara ezazu bat banaka zer den berthute hauken ofizioa eta guri egiten deraukutena.

**I HARDESTE A.** Fedeaz sinhesten dugu lainkoa baithan, eta halaber lainkoak bere Eliza sailduari agertu derautzan gauzetan.

Esperanzaz hartzen dugu fidanzia handi bat lainko hura bera baithan (ikusirik zein on eta miserikordios den) emanen deraukula behar dugun guztia, eta azken finean zeruko loria.

Karitateaz ohesten dugu lainkoa gauza guztien gaiñetik, eta geure Giristino laguna eta geure burua bezala lainkoa gatik.

Prudenziak edo zuhurziak erakusten derauku nola gobernatu behar garen gure egitekoetan, eta ioan-ethorrietan: nola, noiz, zer moldez, eta zer denboraz hek behar ditugun egin.

Iustiziak, nori berea emaiten dio, eta kontentta erazitzen du bat-bedera bere duenaz.

Temperanziak gure guthiziak bridatzen ditu, neurriz edukitzen ditu, soberaniaz gaiñez edo gutiz eskaz eztagiten.

Borthitztasunak borthitzten gaitu, indar eta bihotz emaiten derauku lainkoa gatiketa haren legearen begiratzeagatik presenta ahal ditezkeien trailla eta egiteko guztien benzuteko eta garaitzeko.

# Perfezioneko konseilluen deklarazioa. Hamekagarren Kapituluia

**GALDEGITEA.** Erran da lehenbiziko partean ezen perfet izaiteko konseilluak direla hirur, borondatezko probetasuna, bethiereko kastitatea, eta behar den gauzetan obedient izaitea. Zer deitzen duzu borondatezko probetasuna?

**I HARDESTE A.** Munduko onhasun guztiak lainkoa gatik utzirik bere bererik ez deus edukitzea. Eta konseillu hunen begiratzeko egiten dute promes te botu Fraide eta Serora sartzen direnek.

**GALDEGITEA.** Zer da bethiereko kastitatea?

**I HARDESTE A.** Ez ezkontzea, eta ezkonzatic kanpoan ere haragizko obrarik ez egitea. Eta hunetzaz ere egiten dute promes eta botu Fraidek, Serorek, eta Eliza-gizon ordenu sakratuak hartzen dituztenek.

**GALDEGITEA.** Konseillu hunen gaiñean nahi nuke iakin ea ezkondu gabe Fraide edo Serora sarthu gabe, eta ordenurik ere hartu gabe, on denz kastitatearen begiratzea, eta promes baten

azpian haragizko obretarik apartaturik bere etxean bizitzea?

**I HARDESTEA.** Gauza ona eta saindua da hori, eta ezkontzea baiño hobe eta Giristinotasuneko añañhitz lekutan usatzen dena: Eta halakoek izanen dute merezimendu handia lainkoaren aitzinean, baldin bere promesa behar den bidean edukitzen eta begiratzen ba-dute.

**GALDEGITEA.** Zer deitzen duzu obediencia?

**I HARDESTEA.** Bere borondate propioa utzirik bere aitzinekoen eta gaiñekoen borondatearen azpian iartzea, eta heken obeditzea, lainkoaren kontra eztiren gauzetan. Hunetzaz halaber egiten dute promes eta botu Fraide eta Serora sartzen direnek.

**GALDEGITEA.** Hirur gauza hauk zergatik deitzen dira konseillu?

**I HARDESTEA.** Zeren borondatezkoak baitira eta ez obligazinozkoak, erran nahi da, lainkoak eztuela nehor obligatzen heken begiratzeko promesik egitera, baiña batbederari utzten dioela bere hautara.

**GALDEGITEA.** Ordea, prometatuz gero obligatzen dute konseillu hauk?

**I HARDESTEA.** Bai obligatzen dute, eren prome-sarekin batean egiten dira manamendu.

**GALDEGITEA.** Zer diferentzia da konseilluen eta manamenduen artean?

**I HARDESTEA.** Manamenduak bethi behar dira begiratu bekatu mortalaren penan; baiña konsei-lluen begiratzeko obligazinorik ezta, promesik eztenean.

## **Espiritu Sainduaren dohaiñen deklarazioa.**

### **Hamabigarren Kapitulua**

**GALDEGITEA.** Zertako dira Espiritu sainduaren zazpi dohaiñak lehenbiziko partean ezarriak direnak?

**I HARDESTEA.** Guri perfezinezko estatuaren ardiets arazitzeko. Hauk dira eskalera batzuk bezala saindutasunera heltzeko, eta Esasia Pro-fetak gaiñetik behera iaustean bezala kontatzen ditu, baiña guk har ditzagun orai azpitik gora, hasten garela beldurtasunetik.



Beldurtasuna da eskaleraren lehenbiziko horta eta pausua, eta hark begiratzeko gaitu bekatu egitetik.

Pietateaz egiten gara bihotz-bera, era ongi egitera guthizios.

Iakintasunaz ikasten dugu zer den lainkoaren borondatea.

Borthiztasunaz faboratzen eta sendotzen gara lainkoaren borondatearen konplitzeko, eta haren arauera bizitzeko.

Konseilluaz abisatzen gara nola behar dugun munduaren, haragiaren, eta deabruaren enganamenduetarik begiratu.

Adimenduaz egiten gara gai Fedeko misterioen ardiesteko.

Zuhurtziaz ordenatzen ditugu geure bizitza eta obra guztiak behar den bezala, eta behar dena gana, zein baita lainkoa gure azken fina, eta ontasun guztia.

# Zortzi dohatsutasunen deklarazioa.

## Hama hirugarren Kapitulu

**GALDEGITEA.** Zer aditzen duzu dohatsutasunaren izenaz?

**I HARDESTEA.** Zenbait obra berthutezkoak zeruko dohatsutasunaren ardiesteko bideak bezala direnak: eta hargatik obra hek konplitzen dituztenal dohatsu direla erraiten da gure Salbataileak bere Ebanjelioan.

**GALDEGITEA.** Deklara ezazu bada nola aditu behar diren dohatsutasun hauk.

**I HARDESTEA.** 1. Dohatsu dira gogoz eta borondatez probe direnak, z eren hekena da zeruko erresuma. Halakoak dira munduko onhasunak eta handirasunak lainkoa gatik uzten dituztenak: edo aberats izanagatik ere, hetan gogoa ezarten eztutenak.

2. Dohatsu dira presuna emeak eta mansoa, zeren halakoek lurra gozatuko dute. Hek dira nihoren kontra haserretzen eztirenak egiten zaizten bidegabeak librok barkatzen dituztenak,

eta mundu hunetako gaitzak pazientiki eta gaiztu gabe pairatzen dituztenak.

3. Dohatsu dira nigar egiten dutenak, zeren berak izanen dira konsolatuak.

Hek dira munduko atseginetarik aparturik eta bere bekatuez urrikiturik penitenziazko obretan ibiltzen direnak.

4. Dohatsu dira iustizia gose eta egarri direnak, zeren berak aseko dira. Hek dira gauza guztietan bere eginbidea konpliturik bertzeri ere ongi egitera, eta berak ere obra onetan egunetik egunera aitzinago iragaitera enseiatzen direnak.

5. Dohatsu dira miserikordia egiten dutenak, zeren hala berek ere miserikordia ardietsiko dute.

Hek dira bihotz-berak, beharrean daudenak, urrikari dituztenak, eta bere ahalaren arauaz onez ere faboratzen dituztenak.

6. Dohatsu dira bihotzez garbi direnak, zeren ikusiko dute lainkoa.

Halakoak dira bekaturen notharik bere konzienzietan sentizen eztutenak.

7. Dohatsu dira presuna bakezkoak, zeren hek deithuko dira lainkoaren seme.

Halakoak dira nehorekin etsaitzen eztirenak, eta bertzeren arteko gaitzerizkoak eta etsaitasunak iraungirik ahal dagiten bezanbat guztien adiskidetzera enseiatzen direnak.

8. Dohatsu dira iustizia gatik persekuzioeak eta trabailluak pairatzen dituztenak, zeren hekena da zeruetako erresuma.

Halakoak dira lainkoaren lege sailduaren defendatzeagatik, edo zenbait bertze egitekoagatik hoben gabe gaitz, pena, dolore, eta trabaillu pairatzen dutenak.

## **Bekaturen diferenziaren deklarazioa. Hamalaur garren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Zein deitzen duzu bekatu orijinala?

**I HARDESTEA.** Bekatu hura zeinetzaz kutsaturik sortzen baikara Adam gure lehenbiziko Aitaren bekatua dela kausa: zeren nola Adamek bekatu egin zuenean likistu eta nothatu baitzuen bere ethorkia eta naturaleza, eta guztiok baikara

haren ethorkitik eta naturalezatik, halatan sortzen gara likistuak eta nothatuak: eta notheadun hura deitzen da bekatu orijinala, erran nahi da ethorkizkoa, edo ithurburutik heldu dena.

**GALDEGITEA.** Zer deitzen duzu bekatu aktuala?

**I HARDESTEA.** Guk geurok lainkoaren legearen kontra egiten, erraiten, eta pensatzen duguna.

**GALDEGITEA.** Zenbat dira bekatu aktualak?

**I HARDESTEA.** Biya: bata beniala, eta bertzea mortala.

**GALDEGITEA.** Zer erran nahi du mortal hitz hunek?

**I HARDESTEA.** Leku hunetan hanbat nola hilgarria.

**GALDEGITEA.** Eta benial bertze hitz hunek zer erran nahi du?

**I HARDESTEA.** Hanbat nola barkakizuna, errazki barkatzen den bekatua.

**GALDEGITEA.** Zergatik deitzen dira mortal bekatu batzuk?

**I HARDESTEA.** Zeren hek arima hiltzen baitute: Erran nahi du, khentzen eta iraungitzen dutela arimatik lainkoaren garazia, zein baita gure bizi-

tze espiritualala, eta are gehiago egozten dituzte arimak sekulako heriotzera, zein baita ifernua.

**GALDEGITEA.** Eta zergatik bertze bekatu batzuk deitzen dira benial?

**I HARDESTEA.** Zeren errazki barkatzen baitira, ikusirik ezen lainkoaren garazia eztutela gal arazitzen, eta ez nehor ifernura egozten.

**GALDEGITEA.** Zertan ezagutzen da bekatu bat mortal ala benial denz?

**I HARDESTEA.** Bekatu mortal da lainkoaren eta gure Giristino lagunaren kontra egiten den guztia, baldin gauza asko handia ba-da, eta borondatearen konsentimendu osoarekin egiten bada; baiña gauza gutia eta aphurra denean, eta borondatea ere ez xoil deliberatua, orduan benial da eta ez mortal.

**GALDEGITEA.** Zer kalte ekartzen deraukute bekatu benialek?

**I HARDESTEA.** Lehenbizikorik gure lainkoa ganako amorioa, karitatea, eta debozinoa hozten eta gutitzen deraukute, eta gero heken satisfazinotan zerbait pena mundu hunetan edo Purgatorioko lekuan pairatzera obligatzen gaituzte.

**GALDEGITEA.** Bekatu benialak zertzaz barkatzen dira?

**I HARDESTEA.** Hamar gauzez.

1. Meza enzuteaz.
2. Gorputz sailduaren rrezibitzeaz.
3. Kofesino jeneralaren erraiteaz.
4. Pater nosteraren erraiteaz.
5. Bihotzezko urrikimenduaz.
6. Bulharraren ioiteaz.
7. Gurutzearen seiñalearen egiteaz.
8. Ipizkuaren benedizinoaz.
9. Ur benedikatuaren hartzeaz.
10. Ogi benedikatuaren iateaz.

## **Bekatu mortal buruzagien deklarazioa. Hamabortzgarren Kapitulu**

**GALDEGITEA.** Zer da Uргуillutasuna?

**I HARDESTEA.** Sobera abantail bere buruari desiratzea, eta bertzeak mesprexaturik nehor bere berdin ez edukitzea.

**GALDEGITEA.** Zer da Abarizia?

**I HARDESTEA.** Munduko aberatstasunen neurri-gabeko gutizia, duen baiño onhasun gehiago desiratzen duela, edo dituenetan sobera gogoia ezartea.

**GALDEGITEA.** Zer da haragizko bekatua?

**I HARDESTEA.** Haragiaren atseginetan eta plazereren gogoia edukitzea, eta emaztetara emana izaitea.

**GALDEGITEA.** Zer da Inbidia?

**I HARDESTEA.** Bertzeren ontasunaz damu, eta kalteaz atsegin hartzea.

**GALDEGITEA.** Zer da Gula?

**I HARDESTEA.** Sabelari sobera iarraikitzea, iandanean gogoia edukitzea.

**GALDEGITEA.** Zer da Haserretasuna?

**I HARDESTEA.** Kanpoan eta barrenean mendekatzekeo desiraz eta gaitzerizkoaz betherik ibiltzea.

**GALDEGITEA.** Zer da Nagitasuna?

**I HARDESTEA.** Gogoaren hiltasun bat zeñetzaz egiten baita presuna hain triste eta pisu, non ongi egiteko gogorik eta indarririk ezpaitu bere baithan sentitzen.



**GALDEGITEA.** Zergatik bekatu hauk deitzen dira mortalak, eta zazpi?

**I HARDESTE A.** Ez zeren bekatu mortalak ez tiren zazpi baiño gehiago, baiña zeren zazpi hak bertze guztien erroak eta ithurburua baitira: erran nahi da, bertze guztiak hautarik ilkitzen era sortzen direla.

## **Espiritu Sainduaren kontrako bekatuen deklarazioa. Hamaseigarren Kapitulu a**

**GALDEGITEA.** Zer da Espiritu sainduaren kontra bekatu egitea?

**I HARDESTE A.** Espiritu sainduak bere ontasuna gatik eskentzen eta presentatzen deraukun garaziaz konturik egin gabe bekatutan barrena sartzea.

**GALDEGITEA.** Zergatik erraiten da bekatu batzuk Espiritu sainduaren kontrakoak direla?

**I HARDESTE A.** Zeren malizia hutsez egiten baitira. Eta nola flakotasunezko bekatuak baitira Aitaren kontra, eta ignoranziazkoak Semearen,

hala maliziazkoak dira Espiritu Sainduaren kontra. Eta hek dira guztietako gaixtoenak, perilosenak, eta erremediatzeko gaitzenak.

**GALDEGITEA.** Zer erraiten du gure Salbatzailleak bekatu hetzaz?

**I HARDESTE A.** Eztirela barkatzen mundu hunetan, eta ez bertzean ere.

**GALDEGITEA.** Nola aditu behar dira hitz hauk?

**I HARDESTE A.** Bekatu hetarik bat zuek (lehenbiziko partean ezarriak baitira guztiak) eztirela barkatzen, eta bertzeak nekez barkatzen direla. Lehenbizikoa eta azkena (zein baitira lainkoaren miseriakordiaz etsitzea, desesperatzea, eta penitentiariak egin gabe bekatu mortaletan hiltzea) eztirela barkatzen; eta berriz bertze laurak barka ba-ditezke ere, ordea xoil nekez eta mirakuilluz bezala erremediatzen dira, presunaren borondate gaixtoa gogorra, eta itsutua dela kausa. Hartarakotzat halakoak komunzki bere bekatuetan hiltzen dira.

Bertze gaiñerako lehen partean diren gauzek eztute deklaraziorik behar; Halatan hemen akabatzen da Doktrina Kristianaren bigarren parte.

# **HIRURGARREN PARTEA**

Debozinozko othoitz eta orazino batzuk  
bere denboretan egin eta  
erran behar direnak

## **APPROBATIO**

Ego infra scriptus iusu Reuerendissimi Domini Claudii de Rueil Episcopi Bayonensis vidi et perlegi pias quasdam Orationes à Patre Stephano Materre Ordinis Fratrum Minorum de Obseruantia Praedicatorum, Cantabrico idiomate conscriptas, quas dignas iudico quae in lucem prodeant. Datum Bayonae de 21. Augusti anno Domini 1623.

Michael d'Oiharard  
Vicarius Generalis

## **LICENTIA R.P. PROUINCIALIS**

Nos Frater Aegidius Grenier Ordinis Minorum regularis Obseruantiae Prouinciae Aquitaniae antiquioris Minister Prouincialis et seruus, facultatem concedimus Patri Stephano Materre eius-

dem Prouinciaie Praedicatori, ut pias quasdam orationes Cantabrico idiomate à fe comositas et approbatas, et ad calcem sui Catechismi in hac secunda editione adiectas, typis mandari curet. In cuius concessionis fidem has literas manu nostra subscriptas, et officii nostri sigillo munitas dedimus Tolosae in nostro Conuentu Sancti Francisci de Obseruantia, hac die 12. Septembris anno Domini 1623.

Fr. Aegidius Grenier  
Minister Prouincialis

**Nola behar dioen  
Giristinoak bere burua  
lainkoari goizean gomendatu**

*Goizean ohetik iaiki baiño lehen ailtxa ezazu zeure espiritua lainkoa gana, erraiten duzula ahoz eta bihotzez. Biz laudatu eta benedikatu lainkoaren izen saindua.*

*Gero zeñaturik har ezazu ur benedikatua (ohearen aldean behar baita eduki) erraiten duzula. Garbi nazazu launa zeure garaziaren*

uraz, eta eginen da ene arima elhurra bezain xuri.

*Gero zenbait etxeko ganbaratan edo bazterretan belhauriko iarririk erran itzazu. Pater Noster, Abe Maria eta Kredo.*

*Eta hauken ondoan errazu othoitz haur.*

## **OTHOITZA**

Iainko launa guziz botheretsua, huna ni zure kreaturetarik bat presentatzen naiz goiz hunetan zure maiestate handiaren aitzinera, zor4 derautzudan ohorearen eta laudoriaren ahal bezanbat errendatzera. Adoratzen zaitut humilki neure indar guztiaz, eta aithortzen dut zu zarela ene Kreatzaillea, Salbatzaillea, labea, habea, ontasun guztien ithurria, eta bai emaillea ere. Esker-rak eta laudorioak emaiten derauzkitzut zure ganik orai artean errezibitu ditudan ontasun guztiez, eta beregainki eren ioan den gauean peril guztietarik begiratu bei nauzu. Bada gauean bezala egunean ere begira nazazu othoi, eta zeure eskutik eduki nazazu: ene pensamenduak, sentimenduak, hitzak, obrak, eta gorputzaren manaiu guztiak goberna itzazu: Gida nazazu

neure ioan-ethorri guztietan; Erakuts diazadazu zer bide behar dudan eduki, eginen, erranen, eta pensatuko dudan guztia zure ohoretan eta laudoriotan gertha ditekeien bezala. Egungo ene intenzionea biz zure borondatearen konplitzea, zure loriaz eta ohoreaz kontu edukitzea. Zeure ontasuna gatik begira nazazu egungo egunean bekatu egitetik, eta halaber peril eta inkontru gaitxo guztietarik. Benedika ezazu ene trabailua: Iraungazu ene baithan pizten den su gaixtoa: Khen diazadazu banaloriaren gutizia, eta indazu zure zerbitzuan, beldurtasunean, eta amorioan egun hunetan egoiteko eta irauteko indarra.

Birjina saildua ene Salbatzaillearen ama, zu zara haren ondoan ene esperanza guztia: har nazazu othoi egun zeure faborearen azpian, eta zeure arartekotasunaz ardiets diazadazu lainkoa ganik haren maiestateak plazer duen bezala egun hunetan ibilteko garazia. Aingeru saildua ene presunaren begiratzeko kargua lainkoaren pietatez hartu duzuna, goberna nazazu othoi, eta edukazu nitzaz kontu egun hunetan. Begira nazazu peril guztietarik, etsai gaixtoaren enga-

namendu etarik, eta prinzipalki bekatu mortaletan erortzetik: halako moldez non azken finean zurekin batean ardiets dezadan eta goza sekula fimgabeko loria. Biz hala.

## **Meza Sainduaren debotki enzuteko zer egin behar duen Giristinoak**

*Meza saindua nola baita sakrifizioa gure Salbatzailleak bere heriotze eta Pasione Sainduaren orhoitzapenatan ordenatua, iduritzen zait ezen haren enzutetik probetxu atheratzeko, gauzarik hoberena dela iainkoaren Semeak gure gatik pairatu zituen penen eta doloreen gogoan erabiltea eta konsideratzea. Baiña zeren Pasione dolarezko hark misterio aňhitz baitaduka bere baithan, eta hain denbora apurraren barrenean ezin iragan baititezke espirituan guztiak; Hala-kotz hetarik zazpi prinzipalenak hautatu ditut, baitira zazpi aldiak zeinetan gure Salbatzailleak bere odol preziatua isuri baitzuen bere pasioneko egunean.*

Lehenbizikoa da Getsemaniko baratzean odolezko izerdia gorputzetik ilki zeikanean, eta lurreraiño erori.

Bigarrena, Pilatusen etxean harroin batekin lothurik borthitzki azotatu zutenean.

Hirurgarrena, han berean arazeko khoroz burua muiñetaraiño zilhatu zeraukatenean.

Laurgarrena, Ierusalemeko karriketarik gurutzeta soiñean zuela iragan zenean.

Bortzgarrena, Kalbarioko mendian eskuak eta oiñak gurutzean itzatu zeraukatenean.

Seigarrena, gurutzean hala itzaturik airean gora ailtxatu zutenean.

Zazpigarrena, saihetsa soldadu batek dardo puntaz erdiratu zeraukanean.

Zazpi misterio hauken gaiñean emaiten derauzkitzut zazpi orazino Mezaren hasterik Gorputz saildua ailtxatzeraiño erran ahal ditzakezuna: Eta gero handik fineraiño bertzen orazino bat zeinnetan oferendatzen baitzaizka Aita zerukoari gure bekatuak gatik bere Seme gure launaren Pasioneke merezimenduak.



*Bada nik hemen emaiten derautzudan molde huni iarraiki ba-zakitza, atherako duzu Meza enzutetik probetxu handia arimakotzat.*

## **Meza Sainduaren debotki enzuteko moldea**

*Elizan sartzen zarenean errazu hunela. Etxe saindu hunetan sartzen naiz, lainko handia, zure Maiestate saindua adoratu eta laudatu nahiz.*

*Gero har ezazu ur benedikatua, erraiten duzula. Garbi nazazu, launa, zure garaziaren uraz, eta eginen da ene arima elhurra bezain xuri.*

*Ger belhauriko iarririk saluta ezazu Sagaramendu saindua erraiten duzula. Adoratzen zaitut humilki, Iesu-Kristo ene launaren gorputz preziatua, Sagaramendu horretan estalirik zaudena, zeren salbatu baituzu mundua zeure Pasione sainduaz.*

*Geru Mezarik oraiño hasten ezpada, errazu zenbait orazino liburu honetan direnetarik edo, bertzetarik plazer dukezun bezala. Meza-errai-*

*Ilea adarera ethor dadinean, errazu debotki eta atentoki othoitz haur.*

## **OTHOITZA**

Iesu-Kristo ene launa eta Salbatzaillea, zeure Gorputz preziatuaren sakrifizioa, zeure Pasione sainduaren orhoitzapenetan mundu hunetarik ilki baiño lehen ordenatu zenduena;

Eman diazadazu, othoi, halako debozinoarekin eta reberenziarekin MEza hunen enzuteko, eta gure gatik pairatu dituzun penen gogoan erabil-tzeko garazia, non Pasione saindu haren fruituak eta merezimenduak ene arimaren gaiñean erre-zibi ditzadan Sakrifizio hunen berthutez. Biz hala.

*Gero has zaitea pausatuki zazpi orazino hau-ken erraiten: Eta hitzak ahoz erraiten ditutzula, erabil itzazu gogoan misterioak eta halaber espi-rituaren atenezionarekin batean beha ezazu Meza errailleak egiten duena.*

## **LEHEN MISTERIOA**

Iesu-Kristo ene Salbatzailleak, eskerrak eta laudoriak errendatzen derauzkitzut zeren Getse-

maniko baratzean gure gatik hain tristatu baitzinen, non othoitzez zeneundela odolezko izerdia zure gorputzetik ilkirik lurreraiño isuri baitzen. Othoitzez nagotzu odol preziatu haren baliotasuna gatik, eta zuk orduan sentitu zenduen tristezia handi hura gatik, eman nahi derautazun halako urrikimenduaren neure bekatuez izaiteko garazia, non zure odolezko izerdi haren ordain isur dezadan nik ere dolore hutsez neure begietarik ur eta nigar. *Pater Noster, Abe Maria.*

## **BIGARREN MISTERIOA**

Iesu-Kristo ene Salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derauzkitzut zerenez eure odol preziatua isuri baitzenduen noiz ere Pilatusen manuz harroin batekin lothurik, soldaduek zure gorputz sakratua azote kolpez desegin eta larrutu bait zuten. Othoitzez nagotzu odol preziatu haren balioa gatik, eta zuk ordu hartan sentitu zenduen dolore handi hura gatik, nahi derauzkidatzun neure bekatu guztiak barkatu, eta heken gaztik merezi ditudan gaztiguetarik ere nahi nauzun halaber libratu. *Pater Noster, Abe Maria.*

## **HIRURGARREN MISTERIOA**

Jesu-Kristo ene salbatzaillea, eskerak eta laudorioak errendatzen derauzkitzut zeren zeure odol preziatua isuri baitzen duen noizere soldaduek aranzeko khoroa zure buruaren gañean ezarririk, eta makila kolpez aranze puntak hezur-rean barrena sarthurik, zure buru benedikatua zilhatu eta zaurthu baitzuten inguru guztietan. Othoitzez nagotzu odol preziatu haren amorea gatik, eta ordu hartan iragan zenduen dolore handi hura gatik, nahi derautazun eman bihottzeko urrikimendu bat; eta urrikimendu haren puntaz neure rima hain borthizki zaurthu eta zilhatu, non egiazko penitentzia egiten daudala loriazko koroa ardiets dezadan zeruko erresuman. *Pater Noster, Abe Maria.*

## **LAURGARREN MISTERIOA**

Jesu-Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derauzkitzut zeren zeure odol preziatua isuri baitzenden, Ierusalemeko karriketarik gurutzea soñean zenduela, Kalbarioko mendira ioan zinenean: eta othoitzez nago-

tzu odol preziatu haren baliotasunagatik, eta ordu hartan sentitu zenduen dolore bandi hura gatik, eman nahi derautazun mundu hunetako gaizen hain gogo onez pairatzeko indarra, non tribulazioetan bezala konsolamenduetan ere partale gertha nadin. *Pater Noster. Abe Maria.*

## **BORTZGARREN MISTERIOA**

Iesu-Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derauzkitzut, zeren zeure odol preziatua isuri baitzenden noiz-eta Kalbarioko mendian soldaduek zeure eskuak eta oñ sakratuak itze lodiz eta borthitzez gurutzea itzatu baitzerauzkitzuten. Odol preziatu haren baliotasuna gatik, eta orduan sentitu zenduen dolore handi hura gatik, itza diazadazu, othoi, neure gorputza etaespiritua zeure beldurtasunaren itzeaz. Eta halako moldez zurekin lot eta ioz nazazu gurutzean, non ene guthizia gaixtoen arauaz ez nadin gehiago bizi, zure borondatearen baizen. *Pater Noster, Abe Maria.*

## **SEIGARREN MISTERIOA**

lesu-Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derauzkitzut zeren zeure odol preziatua isuri baitzenden noiz-eta soldaduek zure gorputz sakratua gurutzea itzaturik ailtxatu baitzuten airean gora, eta haren pisutasunaz handitu eta gazkoatu baitziren zure eskuetako, eta oiñetako zauriak. Othoitzez nagotzu odol preziatu haren merezimendua gatik, eta orduan pairatu zenden dolore handi hura gatik, nahi derautazun eman lurreo gauzetarik halako moldez apartatzeko garazia, non zerukoetara espiritua ailtxatzen dudala, hetan ezar dezadan neure bihotza eta kontentamendu guztia. *Pater Noster, Abe Maria Gratia*

## **ZAZPIGARREN MISTERIOA**

lesu-Kristo ene salbatzaillea, esker eta laudorio derautzut zeren zeure odol preziatua isuri baitzenden noiz-eta gurutzean hilez geroz zure saihetsa soldadu batek dardo puntaz idekirik odola urarekin athera baitzerautzun. Odol preziatu hura gatik zaurt diazadazu, othoi, neure arima zeure amorioaren dardoaz, eta sar nazazu Parabisuko lorian, zeñen athea ideki bait zen-

duen zeure odol preziatuaren saihetsetik isurteaz. *Pater Noster, Abe Maria.*

## **Gorputz saindua, ailxatzen denean errazu hunela**

Adoratzen zaitut humilki Iesu-Kristo ene salbatzailearen gorputz sakratua, Maria birjina ganik sorthu, ta gurutzean ene gatik hil zarena, haragi bizia, arima saindua, lainkotasun osoa, eta guztion salbamendua: zure amorio handia gatik duzun, othoi, nitzaz miseriakordia eta pietate.

*Eta kalitza ailtxatzen denean errazu:*

Adoratzen zaitut humilki Iesu-Kristo ene salbatzailearen odol preziatu, ene redemziona pagamendutan isuri izan zarna: garbi diazadazu othoi, neure arima eta salba nazazu zeure ontasunaren berthutez.

*Eta gero othoitz han latinez:*

Anima Christi sanctifica me.

Corpus Christi salua me.

Sanguis Christi inebria me.

Aqua lateris Christi laua me.  
Passio Christi conforta me.  
O bone Iesu exaudi me.  
Intra vulnera tua absconde me.  
Ne permittas me separari a te.  
Ab hoste maligno defende me.  
In hora mortis meae voca me.  
Et iube me venire ad te.  
Ut cum Sanctis tuis laudem te.  
In saecula saeculorum, Amen

*Gero Mezaren fineraiño errazu debotki eta gogoti: othoitz haur, zeinetan oferendatzen baitzaitza Aita Zerukoari gure bekatuak gatik bere Seme gure launaren Pasionekeo merezimenduak.*

## **OTHOITZA**

Aita eternala zeruaren eta lurraren egilea, oferendatzen derautzut Eliza sainduaren intenzi-noarekin batean, zeurre seme bakoitzaren Pasio-nea, Sakrifizio hunetan representatzen dena, gure bekatu guztien satisfazinoetan. Beha ezazu zeurre Maiestatearen trotunik nor den nik presentatzen derautzudan haur, zer pairatu duen, eta noren gatik. Haur da zure seme hoben-gabe



Gurutzean itzatu zutena. Haur da Sakrifikatzaile etrnala, bakezko sakrifizioa Kalbarioko mendian oferendatu derautzuna. Haur da Bildots nothagabea, deusetan hutsik egin gabe bere bizia galdu duena. Orhoit zaitea nola izan zen eskuetan eta oiñetan itzatu, aranzezko koroaz buruan zilhatua, azote kolpe hutsez larruturik zathitua, burutik oiñetaraiño odolstatua, alde guztietarik penaz eta dolorez inguratua, guztiz desegina, eta gizonaren figurarik edo iduririk eztuena bezala bilhakatua; Gurutzean nola zegoen burua beheiturik, begiak zerraturik, begitar-tea horiturik, saihetsa idekirik, besoak zabaldurik, zangoak hedaturik, zauriz betherik, ta bere mienbro guztietan deseginik: eta hauk guztiak hala direla orhoit zaitea, othoi, nola pena hauk guztiok pairatu dituen bekatoreen salbatzea gatik, eta heken partez zure Maiestateari satisfazione egitea gatik. A Karitate handia! ontasun paregabea! amorio mirakuilluzkoa! Huts egiten du zerbitzariak, eta haren partez pagatzen du launak; gathibutasunetik gizonaren libratzea gatik emaiten du bere bizia lainkoaren semeak: Hobenduriak merezi dituen gaztiguak pairatzen

ditu hobengabeak: Eta bekaturik egin ez tuenak hartu ditu bere gaiñera munduko bekatu guztiak. Beha diazozu, Aita zerukoa, pietatezko obra handi huni, beha diazozu hunen baliotasunari; Beha ezazu zer eta zenbat zure aitzinean merezi duten hain pena eta dolore handiek, zer merezi duen heriotze dolorezko hark, eta heken bertutez barka diatzaguzu geure bekatuak, eta khen merezi ditugun gaztiguak. Haur da ahal datekeien oferendarik baliosena, eta bai zure gogarakoena ere: eta handik dadukagu ezen gure zorraren pagatzeko asko, eta are millatan gehiago ere badela; zeren baldin lade batean ezar baditezi gure gaixtakeriak eta bekatuak, eta bertzean gure Salbatzaillearen ontasuna eta merezimenduak, edirenen da segurki handiago eta gehiago dela pagamendua zorra baiño. Gu zure etsaiak ginen denboran zure semearen Pasionearen bidez egin zen zure eta gure arteko bakea; orai ere esperanza dugu haren beraren berthutez barkatuko derauzkigutzula geure bekatuak. Errezibi ezazu bada, Aita zerukoa, ofrenda haur begitarte onez, eta duzun othoi gure bekatuen gaiñean miserikordia eta pietate.

Eztiazaguzula Sakrifizio hunen fruitua errefusa gure indignetasuna gatik, baiña konsidera ezazu ezen zerorrek eman deraukuzuna bera presentatzen derautzugula geure bekatuen satisfazinoetan.

Hunekin batean gomendatzen derauzkitzut munduko estatu guztiak, eta nezesitateak hala espiritualak nola tenporalak. Eliza Katholika zure Esposa, Aia saildua zure Bikarioa, Elizako bertze Superiorak eta Gobernariak, gure Errege launa, Prinze Giristinoak, herrietan kargu dutenak, gure haurrideak, ahaideak, adiskideak, eta ongi-egile guztiak. Konberti itzazu bekatoreak, konsola itzazu tristeak, senda itzazu eriak, fabora itzazu beharrak, eta salbamenduko portura hel itzazu itsasoan dabilzanak. Fede saildura ekar itzazu Paganoak, jujen itzazu errebelatuak, begira gaitzazu gatzetarik, eman diazaguzu bakea geure denboran, eta Giristino fidelen arimak athera itzazu Purgatorioko penetarik. Eta finean eman diazaguzu zure semearen Pasionekeo mereximenduez ongi probetxatzeko garazia, eta halako molde zure zerbituan enplegatzeko, non bizitze

hunen ondoan ardiets dezadan Parabisuko loria.  
Biz hala.

*Gero errazu debotki, Pater noster: Abe Maria.*

## **Kofesatu baino lehen erraiteko othoitza**

Ahalke naizela eta beldurrez ikhara nabilala presentatzen naiz, lainko eternala, zure maiestarearen aitzinean, zeren baitakusat añhitz eta añhitz moldez zure ontasunaren kontra huts egin dudala. Aithortzen dut itsasoan harea baiño, eta legar bihi baiño, ene baithan bekatu gehiago dela, eta hala tan ez naiz ausart begien zure gana ailtxatzera. Ni naiz bekatore guztietako handiena, gaixtoena, eta eskergabena, ahalkegabeki bizi izan naizena, eta zure manamendu sailduak hitzez gogoz, eta obraz hautsi ditudana. Ni naiz seme gazte desordenatu zure etxetik ilki zen hura, eta zuk eman zenerauzkidan ontasunak munduko plazerren ondoan nenbilala aitzin-gibel behatu gabe gastatu ditudana. Ala ni dohakabe handia bai naiz! zeren utzi zaitut zu

neure labea, eta arzain egiakoa, eta ardi errebelatua bezala aldaratu naiz zure arthaldetik, eta erori otsoaren ahoan. Utzi zaitut biziteko ogi zarena haragiaren gutizien besarkatzea gatik. Utzi zaitut ur biziaren ithurri zarena, agortzen diren kontentamenduei lotzeagatik. Utzi zaitut ene ontasun guztia zarna, lurreko onhasun ezteusei itxekitzea gatik. Akusatzen dut neure eskergabetasuna, zeren hain Laxoki eta ansikabeki utzi dudan hain Aita ona eta amoriozkoa, nola zu izan baitzara enetzat. Zuk ardura ongi egiten zenerautan, eta nik ere ardura zure kontra egiten nuen bekatu. Zure ontasuna eta emetasuna narritara dut neure gaixtakeria handiez, baiña zuk (nola baitzara lainko miserikordiazkoa) ez nauzu gaztigatu nahi izatu zeure iustizia bort-hitzaren arauaz, aitzitik pazientzia handi batekin iguriki derautazu orai artean, egiako penitentzia batez zure gana itzul nendin amoreagatik. Aitor-tzen dut ezen ene gaixtakeriek añañhizetan eman deratzutela okasino ene zure ganik khentzeko, baiña zuk emeki eta amoriozki deithu nauzu zeure gana, eta zure ontasuna gatik barkamendu prometatu. Zure partez segurutzen gaitu zure

Profetetarik batek, eztuzula nahi gal dadin bekatorea, baiña bai zure gana itzul dadin, eta bizi dadin. Eta berriz bertze batek ere badio ezen baldin bekatorea, bere huts eginak ezaguturik eta utzirik, zure gana itzul badadi, etzarella gehiago haren huts eginez orhoituko. Promes hunek bihotz eta esportzu emanik, deliberatzen dut neure bizitze gaixtoaren utztera, eta zure gana neure bihotz guztiaz itzultzera. Errezibi nazazu bada othoi begitarte onez, Magdalena penitenta zure gibelean bere burua lurrera egotzirik nigarrez zegoena errezibitu zenduen bezala, eta eman diazadazu neure bekatuen barkamendu osoa hari eman zeneraukan bezala. Zerorrek deithzen ditutzu zure gana nekhatuik eta kargaturik daudezinak, eta erraiten derauezu arinduko eta deskargatuko ditutzula: huna bada ni bektuz bethea, nekhatua, eta kargatua, eta nahi nuke arindu, nahi nuke karga haur neure gaiñetik khendu, iharrosi, eta zure miseriordia- ren itsas hondarrera egotzi. Erraiten duzu ethorri zarella mundura galduen edireitera, errebelatuen bilhatzera, eta bekatoreen salbatzera; Hetarik bat naiz ni, launa, eta ene gatik ethorri

zarenaz geroz salba nazazu othoi. Izena hartu zenduen Iesus, erran nahi baitu Salbatzaillea: Egizu bada ene alderat zure izen horrek signifikatzen duen arauaz. Orhoit zaitezi ni zurea naitzela kreazinoz eta erospenez, eta eztezazula utz galtzera zeure eskuz egin duzun obra, eta zeure odolaz erosi duzun kreatura. A Iainko guztiz ona eta pietatezkoa, duzun othoi zeure miseriordia handiaren arauaz nitzaz pietate. Miseriordia handiaren nagotzu eske, zeren handiak baitira ene bekatuak: baiña handiak badira ere, badut sinheste are dela konparazinoz gabe handiago zure miseriordia. Eta zeren zuk zeure Elizan Penitenziako sakramendua bekatuen barkamendutan ordenatu baituzu, huna prestatzen hari naiz kofesatzeko, neure konzienziaren deskargatzeko, eta zure garazia sailduaren ardies-teko. Baiña badakizu, Iainko ona, ezen Sagaramendu hunetako behar diren kondizinoak eta aparailuak ezin dituzkedala neure indar joillez, bada kizu lagundu behar zatzaizkidala: argi ezazu bada othoi ene espiritua eta memoria zerutikako argiaz, halako moldez non neure bekatuen itsusitasuna, handitasuna, eta pisuta-

sunazagaturik, kofesaditzadan libreki, klarki, eta bidezki. Eta baldin guztiez ein orhoitz banait, behar dazozu othoi ene intenzione onari, eta errezibi ezazu ene ahotik Errege Dabiten othoitz haur: Neure bekatu, ene ganik estalirik daudezinetarik, edo orhoitzen ez naizenetarik garbi nazazu launa, eta bertzeek ni naizela kausa egin dituztenak ere barka diaitzadazu othoi; zeren ezta munduan bekatu guztiak iakin ahal ditzaikenik.

Hunekin batean eman diazadazu neure bekatuez behar bezalako urrikimendua. Erraiten deraku zure Profetak ezen bihotz danuz eta dolorez hautsia zure gogarako sakrifizioa, eta balio-tasun handitakoa dela zure aitzinean. Ene bihotz haur zaurt ezazu zeure amorioaren tragazaz halako moldez non dolorezko sentimenduz behetik ardiets dezadan zure ganik desiratzen dudan barkamendua.

Ene Iainkoa eta Kreatzaillea, zeren zaren ontasun guziten gaiñeko ontasuna, eta nik gauza guztien gaiñetik maite zaitudana, hargatik dut damu neure bihotz guztiaz zeren zure kontra bekatu egin dudan. Deliberatzen dut finki eta



fermuki (zure garaziaren faborearekin batean) ez gehiago bihurtzera, eta okasinoetarik ihes egitera, egin ditudanen kofesatzera, eta emanen zaitan penitenziaren konplitzera. Eta nola bainagotzu humilki neure bekatuen barkamenduaren eske, hala dut esperanza zure miserikordia handia baithan ene eskea enzunen duzula, eta barakatuko derauzkidatzula. Biz hala.

## **Kofesatu ondoan egiteko othoitza**

Eskerrak eta laudorioak emaiten derauzkitzut, Iainko eternala, lehenbizikorik zeren zeure penitentzia egitera orai arteiño iguriki baiterautazu: eta gero zeren neure bekatuen ezagutzera ethorririk, heken kofesatzeko zeure ontasuna gatik denbora eman baiterautazu. Ezagutzen dut ezen Penitenziazko Sagaramendu hunetzaz bethe nauzula ontasunez, eta faboratu neure arimaren miseriarik handiengan. Hunetzaz iustifikazioneko garazia eman derautazu, eta bai neure bekatuen barkamendua ere: zeure adiskidetasunean ezarri nauzu, eta zeruko erresuma-

ren primu egin: Espiritu sainduaren dohaiñak barreneko bertze berthutekin eman derauzkida-tzu, eta neure arimaren zauriak sendatu; Ene espiritua alegeratu duzu, eta ene arima, lehen hil zena, piztu: eta finean neure bektuen pisuta-sunetik arindu, kargatik deskargatu, eta Ifernuko penetarik libratu nauzu. Sagaramendu saindu hunen bidez eraman nauzu bekatutik garaziara, heriotzetik bizitzera, ilhunbetik argitara, gathibu-tasunetik libertatera, eritasunetik osasunera, eta Ifernuko athetik Parabisuko aldera. Ha! ene lain-ko bihotzekoa, hanbat ontasun egin derautazu-na, zer eginen dut nik zure alderakotzat? Baldin bertzerik ezin ba dagit, eskerrak bedere emanen derauzkitzut neure ahal guztiaz, eta Errege Dabi-tek bezala erranen deratzut: Ene bekatuen gat-heak desegin ditutzu, launa, laudoriozko sakrifi-zioa oferendatuko derautzut, zure izen saindua inbokatzen dudala. Orhoitzen naiz, ha ene salba-tzaillea, ezen zuk hogoi eta hemezortzi urtheta-ko eri Siloeko urean sendatu zeduen hari erran zeneraukala: Huna, orai sendatu aizenaz geroz, oha, eta eztagiala gehiago bekatu-rik. Hain ber-tze erraiten derautazu bada orai niri ere: neure

bekatuen barkamendua eman derautazunaz geroz, manatzen nauzu eznadila gehiago hetara bihur. Hala egin nahi dut, launa, zure amorea gatik, eta neure probetxua gatik. Zuk garbitu nauzu, ez tut gehiago lizundu nahi: Ailtxatu nauzu, ez tut gehiago erori nahi: deabruaren gathibutasunetik libratu nauzu, ez tut gehiago haren eskuetan erori nahi: garaziazko bizitzea eman derautazu, ez tut gehiago bekatu mortalaz espiritualki hil nahi: Ardietsi dut behin zure adiskidetasuna, ez tut gehiago hura galdu nahi; Eta finean salbamenduko bide xuxenean ezarri nauzu, ez tut gehiago hartarik aldaratu nahi. Iesus ona, zu izanen zara hemendik aitzina ene desiramendu guztien xedea eta fina: eta ez tut gehiago neuretzat bizi nahi, zuretzat bizi nahi, zuretzat baizen.

Baiña zeren baitakit ezen gauza hauken guztion konplitzekotzat ene arimaren indarrak ttipiegi eta flakoegi direla, egiten derautzut othoitz zeure pasione sainduaren merezimenduak gatik, nahi derautazun neure espiritua argitu, adimendua gobernatu, bihotza faboratu, eta borondatea nik orai egiten dudan deliberamendu hunetan

fermuki irauteko eta perseberatzeko, halako moldez borthitztu, non ikusten diren eta ikuten eztiren etsai guztien tentamenduak benzaturik, eduki dezadan galdu gabe orai kofesatze hunetan errezibitu dudan garazia haur.

Biz hala

## **Gorputz saindua errezibitu baiño lehen egiteko othoitza**

Konsideratzen dudañean neure baithan lainko handia, zu nor zaren, eta ni nor naizen, beldur naiz sobera ausartzia har dezadan, zure gorputz preziatuaren sagaramendu hunetan errezibitzera hurbiltzeaz. Baiña orhoiturik ezen zerorrek gonbidatzen gaituzula zeruko ogi hunetarik iatera, baldin sekulako bizitea nahi badugu ardietsi: hunek emaiten deraut bihotz eta esportzu seguranza handi batekin zure gana hurbiltzeko. Huna bada, ha lesus ona, zure miseriakordian eta ontasunean fidaturik heldu naiz eria midikua gana, probea aberatsa gana, eskalea emaillea gana, biluza bestitzaillea gana, lizuna ura gana, eta

itsua argitzaillea gana. Senda ezazu bada othoi ene eritasuna, betha ezazu ene hutstasuna, estal ezazu ene biluzgorritasuna, xahu ezazu ene lizuntasuna, argi ezazu ene itsutasuna, eta indazu Sagaramendu saindu hunen errezibitzean halako debozinoa, intenzionea, garbitasuna, humiltasuna, fedea, eta amorioa, nolakoa baita-goka misterio handi huni, eta ene arimak-ere bere salbamenduko behar baitu.

Kontatzen du zure Ebanjelioak ezen zuk egun batez Ierusalemeko Tenploan oihuz erran zenuela: Egarrri dena bethor ene gana, eta edan beza. Huna bada ni, a bizitzeko ithurria, ethorten natzaitzu munduko egitekoen ondoan nabilala nekhatu-rik, egarriak hila, ur eske: eta badakit nehork-ere zuk zerorrek baizen ezin iraungi dezakeiela ene egartsu handiaren sua.

Sagaramendu hunetan erakusten derakuzu, launa, zeure amorio handia, zeren etuzu asko eritzi zeure presuna Maria Birjinaren sabelean gizon eginik emaita, ez eta zeure odolaren Gurutzean hil zinenen guri bizitzea emaita-gatik isurtea: baiña gehiago gure arimen ontasunetan, eta prometatu derakuzun zeruko loriaren

bahitan eta segurantzatan utzi derakuzu eta eman aldareko Sagaramendu Saindu hunetan zeure gorputza eta odol preziatua, ogiaren eta arnoaren figuraz, iduriaz, zaporeaz, koloreaz eta bertze akzidentez kanpotik estalia. Ha! gizonen maitazaille handia, Sagaramendu haur gure ganako amorioa gatik ordenatu duzuna, othoitzez nagotzu nahi derautazun oraiko parada hunetan zeure amorio handiaren kharraz neure bihotza zure amorioaren orhoitzapenetan, eta zure intenzionearen arauaz amorioazko misterio haur amoriorekin errezibidezakedan bezala piztu eta berotu. Baiña zuk nolatan (garbitasuna bera zarelarik) nahi duzu hain leku lizunean eta nar-dagarrian, nola baita ene arima sarthu? Aithor-tzen dut ez naizela zure errezibitzeko gai: ezagu-tzen dut neure indignetasuna, eta zuk zerorrek behar nauzula garbitu eta prestatu. Emo zu bada aitzinetik ene arimari zeruko benediziona, garbi nazazugaraziazko uraz, eder nazazu zeure dohaiñez, betha nazazu berthutez, eta egin nazazu zure errezibitzeko gai naizatekeien beza-la. Hunela prestatu desiratuko zaitut, esperan-zaz zure presenziak berekin ekarten dituen onta-

sunak gozatuko ditudala, eta desira haur ezte-  
la ene kaltetan izanen. Zato bada ene salbatzai-  
llea, sar zaitea ene baithan barrena, ta zaude  
bethierekotz enekin. Pitz ezazu ene bihotzean  
zeure amorioaren sua, iraungazu guthizia gaix-  
toen kharra: Bero ezazu ene epeltasuna, erra  
itzazu ene inperfezioneak, eta egin nazazu zeure  
gorputz preziatuaren partaletasunaz behar den  
gauza guztietako gai eta digne. Eta nola Erregue  
Dabitek Misiboseth Ionathas bere adiskidearen  
seme gaixoa Aitaren amoreagatik bere mahaian  
errezibitu baitzuen, eta bere onetan egin parta-  
le; hala ene gaixotasunari behatu gabe egin  
nazazu ni ere Sagaramendu Sainduaren mahai  
hunetan partale, errezibitzen nauzula zeure  
Pasione sainduan erakutsi derakuzun amorioa  
gatik, eta bethiere aduki derakuzun adiskideta-  
suna gatik.

Ha ene bihotzeko lainkoa! orai fedezko begiz  
kanpoko akzidentez estalirik ikhusten zaitut  
Sagaramendu saindu hunetan: noiz ikusiko zai-  
tut bada agertuki, eta estalirik gabe, Aingeruek  
zeruan ikusten zaituzten bezala? Ha! zeruetako  
Erregea, afari dohatsua zeure hautatuenzat

Parabisua prestaturik dadukazuna, Noiz iarriko naiz ni loriazko mahai hartan? Ordu dohatsu haren begira egonen naiz, zuk plazer dukezun arteiño: Eta bitartean esperanzarekin bizino naiz bethiere ene gorputz hunetako bizitzeak diraueiño, bazkatuko nauzula zeure Sagaramendu saindu hunetzaz: eta hunen ondoan eramane nauzula zeure ikusteaz errezibitzen diren atseginen eta plazeren gozatzeraz. bitzari ona bethe zenden zeruko benedizioez, zeren errezibitu eta ostatatu baitzuen bere etxean zenbait egunez zure testamenteko arka: Nik eztut hark bezala zurezko arka bat errezibitu eta ez ostatatu, baiña bai zeruan eta lurrean den gauzarik handiena, baliosena, eta preziatuena, zein baita zure gorputz sakratua, eta harekin batean zure odola, zure arima, ta lainkotasuna. Bada Obededom haren alderakotzat egin zenduena egizu orai ene alderat ere, eta Sagaramendu hunen berthutez betha nazazu zeure dohaiñez.

Ha! Aingeruen ogia, atsegin eta kontentamendu suerte guztiak dituzuna, behte ezazu othoi ene arimaren apetitua zeure eztimasunaren zaporeaz, halako moldez non munduko plazerak



eta kontentamenduak higuin dakizkidan, eta bertze ontasunik zu zerori baizen bilha ezteza-dan, eta ez desira: Zeren zu zara ene esperanza, ene bizitzea, ene erremedioa, ene argia, ene borthitztasuna, ene aberatstasuna, ene konsolamendua, ene alegrianza, ene atsegina, ene bakea, ene sosegua, ene ohorea, ene loria, ene herenzia, ene Kreatzaillea, ene Salbatzaillea, ene launa, ene lainkoa, ene ontasun guztia. Arrazoin da, launa, Aingeruen ogi hartarik dastatu duena aparta dadin munduko atseginetarik: eta bere bihotzeanzeruetako Erregea errezibitu duenak ostika ditzan lurreko gauza guztiak.

Ha zeruetako iakia! Iunta nazazu, othoi, zeurekin zeure amorioaren indarraz, zaren zu ene baithan, eta naizen ni zure baithan! Egin nazazu zeurekin gauza guztietan borondate bat, eta espiritu bat, eta erranen dut Apostoluak bezala: Bizi naiz ni, baiña ez ni, lesu-Kristo ene launa bizi da ene baithan.

Ha! ene Salbatzaillea, ontasun guztien ithurria, eman diazadazu Sagaramendu hunen bert-hutez zure maitatzeko, ohoratzeko, zerbitzatzeko, borondate sainduren egiteko, bekatuetarik

apartatzeko, zure arauaz bizitzeko, eta obra one-tan fineraiño irauteko garazia. Eman diazadazu halaber berthute guztien konplimendua, eta bereziki behar dudan bortiztasuna neure etsai ikusten diren, eta ikusten eztirenen garaitzeko, eta mundu hunetako gaitzen eta penen pazientki pairatzeko. Eta nola Elias Profeta borhitztu eta indarztatu bait-zen, Aingeru batek zure partez ekarri eraukan sut+ophil hartzaz halako moldez ezen hark eman zeraukan indarrarekin berrogoi egunen eta hainbertze gauen bidea eginik, heldu baitzen Orebko mendira: hala niri ere zeruko ogi hunen berthutez eman diazadazu bizitze miseriako hunetako bidearen flakatu gabe iragaiteko, eta zure gana zurekin sekulakotz bizitzera heltzeko indarra. Biz hala.

## **Aita Zerukoari egiteko othoitza**

Aita zerukoa, lainko eternala, hitz batez munduan diren gauza guztiak kreatu ditutzuna, aitortzen dut ni naizela zure kreaturetarik bat, eta nik dudan guztiz zure ganik dudala, eta zurea dela.

Bi arrazoin gatik dei ahal zaitzaket Aita: Bata zeren kreatu bai nauzu eta munduan ezarri: Eta bertzea zeren adoptatu eta zeure haurtzat hartu bai-nauzu. Bataz (zein bai-ta kreatzea) eman derautazu naturalezaren izaitea: Bertzeaz (zein baita zeure haurtzat hartzea) eman derautazu garaziazko estatua, eta zure erresuman zuzen izaitea. Bataz lurreko bertze kreatura guztiak baiño nobleago eta abantailatuago zeure idurira egin nauzu: Bertzeaz Aingeruekin batean zeruko loriaren partaletasuna emaiten derautazu. A lanko handia! Zer abantail aurkitu duzu gizona baithan hain bertze merezi duenik? Miresteko da egiazki nola zu hain handi, Erregeen Errege, eta launen laun zarelarik, nahi izatu duzun hain kreatura ez-deusa nola baita gizona zeure seme-tzat hartu, eta guztiz-ere ni guztietako ez-deuse-na eta galduena nola kontu hartan berean ezarri nauzun. Fabore hunetan da ageri, langoikoa, nolakoa den zure ontasuna, eta ene ganako duzun amorioa, zeïnen berthutez egiten baitzara zu ene Alta, eta ni gerthatzen bainaiz zure haur. Izen amoriozko hunek, zu ene Aita izaiteak, emaiten deraut esportzu eta esperanza behar

orduan faboratuko nauzula, zeure eskutik eduki-ko nauzula, erortzetik begiratuko nauzula, eta Aita onak bere semea bezela zuk ere ni zeure ontasuna gatik bethiere behar bezala gobernatu-ko nauzula. Eta hala esperanza hunekin egiten derautzut othoitz nahi derautazun eman seme on batek bere Aitaren alderakotzat egin behar duen eginbidearen konplitzeko garazia, nola baita, ohoratzea, maitatzea, obeditzea, eta izenaz bezala izanez-ere seme naizatekeien bezala zerbitzatzea. Biz hala.

## **lainkoaren semeari egiteko othoitzza**

Iesu-Kristo ene launa, Aita zerukoaren seme bakoitza, lainko eta Gizon egiazkoa, eskerrak emaitenderauzkitzut zeren ene Salbatzea gatik mundura ethorri baitzinen. Ezagutzen dut ezen zuk egundaiñoz geroztik eduki derautazun amorio hark iauts arazi zinituela zerutik lurrera ene erremediatzera. Zu lainko handia, eta handitasuna bera zarelarik, nahi izatu duzu guztiarekin ere

zeure handitasuna beheiturik, gere haragiaren flakotasunarekin iuntatu, ta iuntaturik gizonaren forman agertu eta ibili. Ikusi zinituen Adamen ondoko miseriak, enzun zinituz oihuak eta errenkurak, eta halatan zeurk ordenaturik zenedukan denbora konplitu zenean, etorri zinen haragiz beztiturik gure miseria guztien erremedioarekin. Orduan, eure ontasuna gatik bisitatu ginitutzunean, eta gizon eginik Gurutzean gure gatik hil zinean, zeure amorio handiaren froga klarki erakutsi zeneraukun. Zuk gure baithan ezarri zenuen imajina eder eta garbi hura desbisstatu zuen Adamek bere bekatuaz, baiña erremediatu eta edertu zenuen zuk zure Pasionearen merezimenduaz. Adamen bekatuak ekarri zerauzkigun kalte handiak, baiña zure ethortzeak erremediatu zituen kalte hek guztiak, eta are eman ontasun doblatuak. Zeren baldin ni eri ba-naiz, zu zara midikua: Egarrri ba-naiz, zu zara edaria eta ithurria; flako ba-naiz, zu zara sostengua eta indarra; hil ba-naiz, zu zara bizitzea; bekatuz kargatua ba-naiz, zu zara arintzailea eta barka-

tzailea; ilhunbetik ilki nahi badut, zuzara argia; finean zeruko loriara ioan nahi badut, zu zara hango bidea. Ni galdu ninzen, zuk ailtxatu nauzu; gathibu ninzen, zuk libratu nauzu; zorrak nituen, zuk pagatu itutzu, zu hil zara, ni hil eznendin amorea gatik, eta penatu zara, penetarik ene atheratzea gatik. A lainko handia, eta ontasunez bethea! Nondik ethorri zaizkit niri pietatezko obra hauk guztiok, zure amoriotik bai-zen; Zarela bethierekotz laudatu hunelako kari- tatea gatik. Baiña zer eman ahal diazaizut nik zure hunen amorio handiaren ordain? Ba-dakit, launa, eztela deus ene baithan, zure eztenik, baiña guztiarekin ere emanen derautzut nik ere neure emorioa, emanen derautzut neure biho- tza, zeren haur da nik gehienik neure dudana, eta zuk ere ene ganik nahien duzuna. Errezibi dizadazu bada; amorioa amorioaz pagatu nahi derautzut. Eta zure amorio hunetarik ethorri zaizkidan ontasunez orhoitzen naizela, laudatu eta zerbitzatu nahi zaitut bizi naizen egunetan. Biz hala.

## **Espiritu sainduari egiteko othoitzza**

Espiritu saindua, Trinitate sakratuaren hirugarren presuna, Mendekoste egunean Apostoluen gaiñera iautsirik heken bihotzak zeruko dohaiñez bethe zinituena: Hurbil zaite othoi ene arimara, eta betha diazadazu zeure amorioaren eztitasunaz. Zu zara bihotzen argitzailea, tristen konsolatzzailea, iakin-gabek irakatsailea, erien sendatzailea, lizunen garbitzailea, eta dohain guztien emailea. Zu zara emazurtz gaixoen aita, hotzen berotasuna, nekatuen pausatasuna, flakoen borthiztasuna, bekatoreen salbamendua, lustuen bozkarioa, eta errebelatuen gidamendua. Ni emazurtuz naiz, zaren zu ene aita; errebelatua naiz, zaren ene gidaria; nekatua naiz, zaren zu ene pausagunea; flako naiz zaren zu ene sostengua; bekatore naiz, zaren zu ene garazia. Ene barreneko ilhuntasunak arguitzazu zeure klaritateaz; ene espirituairen tristurak khen itzatzu zeure konsolamenduaz; ene adimenduaren inoraziaz desterra itzazu zeure dok-

trinaz: ene arimaren eritasuna senda ezazu zeure garaziaz: eta ene bihotzaren hotzetasuna bero ezazu zeure suaren karraz; Eman diazadazu zeure zazpi dohaiñen konplimendua, baitira, Zuhurzia, Adimendua, Konseillua, Iakintasuna, Borthitztasuna, Pietatea, eta Beldurtasuna, zeññen bidez munduko enganamenduak ezaguturik, eta banitatea benzaturik, nadin bethiere zure amorioan egon eta bizi. A Espiritu saindua, arimen bizitze egiazkoa, pitz ezazu ene baithan zeure amorioaren sua bethiere zure zerbitzuan erne eta iratzarria egon naitekeien bezala: Erra diatzadazu neure imperfekzione guztia zeure suaren karraz; bethaitzazu ene arimaren belak zeruko zeure haize eme plazent hartzaz: eta inspira diatzadazu eta ekar gogora zeure loriako eta neure salbamenduko egin behar ditudan obrak. Errakuts eta irakats diazadazu nola behar naizen mundu hunetan nagoeiño gobernatu, eta halaber zer behar dudan egin, erran, eta pensatu, neure arimaren salbamendua zure faborearekin batean ardiets dezakedan bezala bizitzeko. Biz hala.



# **Andredana Maria Iainkoaren Ama Birjinari egiteko othoitza**

Maria Birjina saindua, ene salbatzaillearen ama, ikusirik zu zein garbi zaren, eta ni zein likits, ez naiz ausart zure aitzinean agertzera, eta ez nuke agertu ere behar. Baiña neure miseriaren eta behar handiaren handitasuna kontsideraturik, ezin nagoke agertu ere gabe, eta zure gana fabore eske ethorri gabe. Zu zara Aita zerukoaren alaba, haren semearen esposa, Iainkoaren etxea, Aingeruen Erregina, lurreko kreaturen Andrea, Itsasoko izarra, Birjina guziz garbia, ama paregabea, Adamen etorkiaren ohorea, eta munduko mirakullua. Aithortzen dut izen ohorezko hauken arauaz laudorio handiak merezi ditutzula, baiña laudorio guztien gaiñeko laudorioa, eta ohorerik handiena emaiten zaitzu zeren langoiakoak emazte guztien artean bere ama hautatu baitzinituen. Handik zara bekatore guztien ararteko, eta hartzen dugu esperanza zurekin batean zeruko dohaiñak ardietsiko ditugula.

Garen bada ararteko on, eska zakitza zeure semeari ene partez ene bekatuen barkamendua-  
renzat, egizu haren eta ene artean bakea, eta  
ezar nazazu haren garazian eta adiskidetasu-  
nean. A Birjina guziz garbia, enzun ezazu othoi  
ene othoitza: eta bekatore handia banaiz ere,  
eznazazula hargatik arbuia ez nazazula zeure  
ganik egotz, aitzitik fabora nazazu, eta ararteko  
on gertha zakizkit zeure semearen aitzinean.  
Ardiets diazadazu berthute guztien konplimen-  
dua, arimako eta gorpuytzeko garbitasuna, biho-  
tzeko humiltasuna, Giristino lagunaren alderako  
amorioa eta karitatea, lainkoa ganako debozi-  
noa, eta haren borondate sainduaren egiteko  
anzea eta indarra. A Maria Birjin benedikatua,  
saindutasunaren mirakullua, garaziaren eta  
miserikordiaren ama, zure gomendioan ibenzen  
dut orai eta behiere neure bizia, eta dudan guz-  
tia. Begira nazazu espiritu gaixtoaren engana-  
menduetarik, eta bekatu mortaletan erortzetik:  
Hel zakizkit, eta fabora nazazu neure premia  
guztietan, nezesitatezko pontuetan, eta guztiz  
ere neure heriotzeko orenean. Egizu hanbat  
zeure othoitz onez eta arartekotasunaz, non

hekin batean ardiets dezadan orai lainkoaren garazia, eta gero mundu hunetako aldia dagidanean, haren Parabisuko loria. Biz hala.

## **Aingeru begiraleari egiteko othoitza**

lainkaoren Aingerua, ene begiratzeko ordenatu zarena, esker deratzut ahal dagidan bezanbat zure ganik orai artean errezibitu ditudan ontasun guztiez. Ezagutzen dut ezen zu zarela ene bizitzaren gobernaria, espirituaren gidaria, adimenduaren argitzailea, beharretan faboratzailea, periletan begiraillea, ardurako ongi egilea, eta pensamendu onen inspiratzailea. Zu bethi zaude erne ita iratzarririk ni ukitzen naizen gauzen gaiñean. Ene inguruan zabilza gauaz eta egunaz deus gaizkirik gertha eztakidan. Presentatzen ditutzu lainkaoren aitzinean ene desirak, othoitzak, eta obra onak, eta ekarten derauzkizutzu lainkoaren donuak eta dohaiñak. Zenbat inspirazino on eman derautazu lainkoaren arauaz bizitzeko kontuan? Zenbatetan behazto-

patuko ninzen bekatuaren bidean, baldin zuk ezpanenduzu eskutik eduki? Zenbatetan eroriko ninzen munduko periletan, eta helduk inkontru gaitzetan, baldin zuk etsai ageri direnen zangar-teak, zelatak, eta gaixtakeriak agertu, khendu, eta desegin ezpazinitu? Aithortzen dut egiazki ene bizitze gaixtoak aňhitzetan ere merezi zukeiela urrundu zinen ene ganik, baiña ez nauzu utzi nahi izatu, iraun duzu zeure karitate handiz pietatezko obra hunetan. Nork erran ahal dezake zein obligatu naizen zure alderat. Zenbat derautzudan zor? Gure lainkoak daki hori, eta zuk ere bai, eta ez bertzek, ene adiskide leiala. Ezagutzen dut eztela lekurik zure ganik errezibitzen ditudan ontasunen ezagutzeko eta ez merezi bezala ontasun hauken eskuarren errendatze-ko. Behar bezala eztaidiket ez bata ez bertzea ere zeruraiño: baiña bitartean errezibi itzazu neure ahalaren arauaz emaiten derauzkitzudan eskerrak. O Espiritu dohatsua, zure karguaren eta gomendioaren azpian lainkoak bere ontasuna gatik ene arima, gorputza, eta bizitzea ezarri dituenaz geroztik, othoitzez nagotzu nahi dituzun eduki kargutan eta gomendiotan, oraiñoko-

an bezala hemendio aitzina ere kontu eta ardura eduktzen duzula. Zeure inspirazino sainduz, gogoeta onez aparta nazazu bekatu egitetik. Errebela nadinean ezar nazazu neure mende apur hunetan: hel zakizkit neure heriotzeko orenean: Orduan enplega ezazu zeure indar guztia, eta etsai guztietarik defendaturik eraman al bait-nenzaku zeure konpañian zeruko loriara. Biz hala.

## **Parabisuko Saindu guztiei egiteko othoitzza**

Salutatzen eta ohoratzen zaituztegu Parabisuko Saindu dohatsuak, lainkoaren adiskideak, eta zeruko habitantak. Zuen dohatsutasunaz orhoiturik, eta geure miseriak hersturik, heldu gara zuen gana fabore eskatzera. Zuek iadanik akabatu duzue bizitze hunetako bidea, baiña guk orai darabilagu eskuen artean. Zuek munduko tormenta guztiei garaiturik irabazi duzue salbamenduko portua, baiña gu orai gabilza perilez inguraturik itsas uhinen artean. Zuek seguratu

duzue zuen salbamendua, baiña gu ikaraz gabilza, izi eta beldur gara, ezin iakinez zer gerthaturko zaikun geure heriotzeko orenean. Ea bada sandu gloriosak, konplimendu guztiarekin zaudetenak, orhoit zaitezte othoi gure egitekoaz eta miseriaz. Beha diazaguzue gain horretarik zeuen karitatezko begiez, eta geure beharrak estal diazaguzue zeuen faborez. Guk baiño lehen frogatu zenduten zenbat okasinoz eta enganamenduz bethea den mundu falso haur. Badakizue nola gauden peril suerte guztiez inguratuak, eta geure indar xoillez ezin eskapa gaitzkeiela, eta ez libra peril hetarik. Badakizue halaber geure egitez zein flako huts egiten, eta erorten errax garen, eta bertze alde egun guztiaz akometatzen gaituzten tentamenduak ere zein handiak eta borthitzak diren: Ardiets diazaguzue bada langoikoa ganik gure arimen salbamendua gibelatzen duten trabu guztiei garaitzeko indarra. O Aingeru sainduak, gizonaren salbamendua desiratzen duzuenak, eta hartzaz alegeratzen zartenenak. O Apostolu sanduak, Ebanjelioaren doktrina predikatuz mundua Iesus-Kristoren federa konbertitu duzuenak. O Martiir sinduak, fede

Katolikaren mantenatzea gatik añhitz pena pairaturik azkenean zeuen biziak eman ditutzue-nak. O Ipizpiku sailduak zeuen ansiaz eta trabail-luz lainkoaren Eliza bidezki gobernatu duzue-nak. O dotor sailduak zeuen dotrina onaz Giris-tino fidelei bere salbamenduko bidea irakatsi derauezuenak. O Kofesor sailduak zeuen bizitze onaz, berthuteaz, eta exenploaz mundua argitu duzuenak. O Birjina sailduak arimako eta gorpu-tzeko garbitasuna begiraturik munduaren eta haragiaren mugidak eta gutiziak garaitu dituzue-nak. O Alhargunak eta bertze emazte sailduak, obra onetan eta berthutezkoetan mundu hune-tan enplegatu zaretenak. Eta finean jeneralki saildu guztiak zeuen bizitze oharen merezimen-duz lainkoren faborearekin batean loriako kho-roa irabazi duzuenak, orhoit zaitezte gutzaz, fabora gaitzazue zeuen othoitz onez, euzue gutzaz ansia, zareten gure ararteko lainkoaren alderakotzat; eta ardiets diazaguzue haren ganik Fede egiazkoa, Esperanza, bizia, Karitatea kon-plitua, eta obra onetan fineraiño irauteko gara-zia, hunelatan bizitze miseriatu hunen ondoan merezient eta digne garatekeien bezala zuen

konpañiara heltzeko, eta zuekin batean sekulako fin-gabekotzat lainkoaren laudatzeko. Biz hala.

## **Giristinoak nola behar duen bere konzienzia arratsean examinatu**

*Giristino onak izaitekotzat behar dugu arrats guztiaz geure konzienzia examinatu, eta zer egin, erran, eta pensatu dugun egin gogoeta: iakitea gatik zer bekatu egin dugun egun hartan.*

*Eta konzienziaren examinatze haur bortz puntu hautan dago.*

*Lehena da lainkoari eskerren emaita haren ganik jeneralki errezibitu ditugun ontasun guztiez, eta beregainki egun hartakoez.*

*Bigarrena, lainkoari geure bekatuen ezagutzeko argi eta garazia eskatzea.*

*Hirurgarrena, geure buruari kontu galdegitea beheroki, egun hartan eginez, erranez, edo pensatuz egin ditugun bekatuez.*



*Laurgarrena bihotzeko urrikimenduarekin lainkoari geure bekatuez barkamendu eskatzea, ahalik eta fitetzena kofesatzeko intenzinoarekin.*

*Bortzgarrena, fermuki deliberatzea handik aitzina hobekiago bizitzeko, eta bekatuetarik (lainkoaren faborearekin batean) apartetzeko.*

*Eta examinatze hunen errazki egiten ikasteko, emanen deratzut hemen molde bat, eta nahi nuke huni iarraiki bazenenkitza.*

## **Konzienziaren examinatzeko moldea**

*Arratsean ohera baiño lehen nahi ba-duzu zeure konzientzia examinatatu, bilha ezazu zenbait leku apartatu etxean edo bertzetan, eta hartan belhaurko iarririk has zaitea erraiten.*

Gorputzez eta bihotzez neure burua lurrera egotzirik presentatzen naiz zure Maiestate guziz gaiñekoaren aitzinean, ene lainkoa eta Kreatzaillea, adoratzen zaitudala, neure arimako indar guztiaz.

*Haur erran eta beheiti ezazu zeure burua lurreraiño, eta berriz bere hala ailtxaturik errazu hunela.*

1. Eskerrak emaiten derauzkitzut launa orai artean zure ganikerrezibitu ditudan ontasunez: zeren zeure idurira eta imajinara kreatu bainauzu, zeure odol preziatuaz redemitu, giristino egin, eta bai zure Sagaramenduetan ere partale: añhitz periletarik begiratu, behar dudan mantenua eman, eta bekatuak barkatu. Baiña bereziki esker derautzut zeren egungo egun hunetan zeure eskutik eduki bai nauzu, ontasunik asko eman, añhitz gauzatan faboratu, eta munduko periletarik begiratu bainauzu.

2. Eta zeren neure gaixotakeria hautsez oren oroz bekatutan erortzen ohoitua bainai, hargatik nagotzu othoitzez, ha lainko handia, nahi derauzkidatzun zure kontra egun egin ditudan bekatuak neure memoriora ekarri, bidezki eza-gutzeko argia eman, ta bai hetzaz urrikimendu ere izaiteko garazia.

3. Hunen ondoan iraul ezazu zeure espiritua, eta pensa ezazu ea zein lekutan ibili zaren goize-tik arratseraiño, norekin minzatu zaren, zertan enplegatu duzun denbora, zer obra egin duzun, geheroki egiten duzula gogoeta zer bekatu egin ahal dukezun, eginez, erranez, edo pensatuz: hala gaizki eginak nola ontasun egin ahal zinitzakerarik egin gabe utzi dituzunak: eta halaber ea zeure ardurako inperfeziora eta inklinazio gaixtoekin nola gobernatu karen.

*Eta zer-ere bekatu edirenen bai-tuzu egin duzula egun hartan, ezar ezazu zeure memorian, eta har ezazu ceure bihotzean urriki handia, eta hiruroetan eskuz io ezazu bulhara erraiten duzula.*

4. Hauk dira (ene ustez) ene lainkoa, nik egungo egunean zure kontra egin ditudan bekatuak. Huna zein gaizki enplegatu dudan zuk ongi egiteko eman derautazun denbora. Bildu dut bekatua bekatuaren gaiñera, eta lehen egin nituenak egungoez berretu ditut. Ezagutzen dut,

launa, erori naizela bekatu hautan, zure amorioan eta beldurtasunean behar bezala egon gabez.

## **Kontrizioneko aktea**

Ene lainkoa eta Kreatzaillea, zeren zaren ontasun guztien gaiñeko ontasuna, eta nik gauza guztien gaiñetik maite zaitudana, hargatik dut damu neure bihotz guztiaz, zeren zure kontra egin dudan bekatu. Deliberatzen dut finki eta fermuki (zure garaziaren faborearekin batean) ez behiago bigurtzera okasinoetarik ihez egitera, egin ditudanan kofesatzera, eta emanen zaitan penitziaren konplitzera. Eta nola bai-nagotzu humilki neure bekatuen barkamendu eske, hala dut esperanza ezen barkatuko derauzkidatzula zure miseriordia eta ontasun handia gatik. Biz hala.

5. Eman diazadazu othoi hemendik ez gehiago egiteko garazia egin ditudanetara ez gehiago bihurtzeko, eta gauza guztietan zure borondate sailduaren konplitzeko indarra. Biz hala.

*Hauken ondoan errezu Confiteor, latinez edo Euskaraz.*

## **Giristinoak nola behar dioen bere burua lainkoari arratsean gomendatu**

*Erran dugun molde hunetan zeure konzienzia examinaturik, gomenda diazozu zeure burua lainkoari: eta hartarakotzat erran itzazu, Pater Noster, Abe Maria, Credo in Deum eta gero othoitz haur.*

### **OTHOITZA**

lainko eternala, zure botherearen indarrak eguna eta gaua gizonaren probetxuko kreatu eta ordenatu dituzuna, ezar diatzadazu othoi neure arima eta gorputa gau hunetan zeure hegalean eta ontasunaren itzalaren azpian, eta begira nazazu gaurko periletarik. Desegin itzazu Espiritu gaixtoaren indarrak, ager itzazu haren zelatak ilhunbean atrapa ez-nazan;

indazu pausu ona, lo sosegatua; eztezazula permiti amets gaixtorik egin dezadan; aitzitik halako moldez aduki nazazu zeure eskutik, non ene gorputza lo datzan, bizkitartean, ene espiritua egon dadin iratzarririk zure aitzinean. Ha! argi eternalaren iguzkia, argi diazadazu othoi gauazko ilhunbe hunetan neure arima, eta begira nazazu bekatuko edo heriotzeko ilhunbean erortzetik. Badakusat ezen egungo eguna bere argiarekin iragan den bezala, iragaiten dela apur bana ene bizitzeko denbora-ere. Zaude bada, othoi, ene aldean gau hunetan, eta begira nazazu halako moldez, non salborike ta sendorik edireiten naizela bihar goizean, dizkitzudan eskerak eta laudorioak neure ahal guztiaz. Biz hala.

Aingeru saindua, ene presuaren begiratzeko kargua lainkoaren pietatez hartu duzuna, argi diazadazu, othoi, gau huntan; goberna nazazu, eta begira gaitzetarik. Biz hala.

Zure eskuetan ezarten eta gomendatzen dut, launa, neure arima: edukazu nitzaz kontu, hala nola redemitu bai-nauzu, lainko egiazti zarena. Biz hala.

*Gero hauken ondoan ur benedikatua harturik etzin zaite oherat lainkoaren benedizionearekin batean, zenbait pensamendu on gogoan erabil-tzen duzula, eta hartan zaudela loak har zaitez-keien bezala.*

Iainkoa biz laudatu

## **Bekatuetarik apartatzeko maiz kontsideratu behar diren pontuak**

Zer naiz? *Lur.*

Non nago? *Lurrean.*

Nondik heldu naiz? *Lurretik.*

Norat noha? *Lurrera.*

Noiz harago naiz? *Ezta seguranzarik.*

Nagoen beraz bethi prestik,

Seguranzarik eztenaz geroztik.

# **Marinelek nola egin behar dituzten bere othoitzak itsasoan dabilzan denboran**

Zeren bai-takit iende aÑhitz dela Euskalherrian itsasoan dabilanik, behar derauet hei ere erakutsi nola behar derauktaten bere orazinoak eta othoitzak lainkoari egin, eta egun oroz haren Maiestateari bere burua gomendatu. Eta egia erraitera premia handitako gauza da haur, zeren zenbatenaz eta halakoak periletan ago baitabilza itsasoan, hanbatenaz lainkoari gomendatzeko iratzarriagoak, eta ikasiagoak behar dute egon. Hekenzat bada ezarten dut hemen othoitz egiteko molde bat, zeinÑetzaz probetxa ahal ditezke egun oroz, hanbat goizean nola arratsean.

## **GOIZEAN ERRAN BEHAR DENA**

*Goizean denborak hala emaiten duenean, zuek itsasoan zabilzaten Marinelok bil zaitezte elkar gana, iar zaitezte belhauriko, eta zeuen gogoak lainkoa gana ailtxaturik, eta zeinÑaturik, erranezazue: Pater Noster, Abe Maria, eta Kredo, latinez edo Euskaraz.*



*Eta hauken ondoan erran beza zuetarik batek apur bat gora eta hagitz orai hemen ibeniko dudan othoitza: Eta bitartean eduki bezate bertzek ere hartan gogoia, enzun bezate, edo nork bere liburuetan ixilik irakur bezate, zeren estimatzen dut ez-tela izanen bat-ere irakurtzen dakien marinelik liburu haur izanen eztuenik.*

## **OTHOITZA**

Iainko launa guziz botheretsua, huna gu zure kreatura gaixoak presentatzen gara goiz hune-tan zure Maiestate sainduaren aitzinean, zore derautzugun ohorearen eta laudorioaren ahal bezanbat errendatzera. Adoratzen zaitugu humilki geure indar guztiaz, eta aithortzen dugu zu zarela gure Kreatzaillea, Salbatzaillea, labea, habea, ontasun guztien ithurria, eta bai emaillea ere. Eskerrak emaiten derauzkitzugu zure ganik orai artean errezibitu ditugun ontasun guztiez, eta beregainki zeren ioan den gauean peril guztietarik begiratu baikaitutzu. Bada gauean bezala egunean ere begira gaitzazu, othoi, eta zeure eskutik eduki gaitzazu. Gure pensamenduak, sentimenduak, hitzak, obrak, eta gorputzaren

manaiu guztiak gobernaitzazu, eginen, erranen, eta pensatuko dugun guztia zure ohoretan eta laudoriotan gertha ditekeien bezala. Zeure ontasuna gatik begira gaitzazu egungo egunean bekatu egitetik: benedika ezazu gure travaillua, eta iguzu zure beldurtasunean eta amorioan egun hunen iragaiteko garazia.

O Maria Birjina gure Salbatzaillearen ama, zu zara haren ondoan gure esperanza guztia, othoitzez gagozkitzu har gaitzazun egun zure faborearen azpian.

Eta zuek, o Aingeru sainduak gure begiratzeko eta gobernatzeko lainkoaren ontasuna gatik ordenatu zaretenak, hel zakizkigute, othoi, egungo gure peril eta premia guztietan:

Zaudete bethi gure inguruan, eta zuen indarrak begira gaitzazue inkontru gaixtoetarik. Biz hala.

## **BERTZE OTHOITZA**

Iainko launa guztiz botheretsua, lurrean bezala itsasoan ere esku duzuna; eta zure baithan bere esperanza ezarten dutenak zeure ontasuna gatik egirutzen eta defendatzen dituzuna, enzun ezazu orai gure othoitza, eta beha diaza-

guzu zeure pietatezko begiez. Eta nola Israeleko semeak Egipteko gathibutasunetik atherarik, itsasoaren erditik oiñik busti gabe iragan baitzinituen, eta prometatu zeneraben herrira, egunaz hedoi batez, eta gauaz su-argiz gidatzen zinituela, heldu baitzinituen: Abraham zure zerbitzari leiala Kaldeanoen eskuetarik libratu bere bide guztietan begiratu baitzenden: Tobias zure adiskidearen semeari bidean lagun Rafael Aingerua eman baitzinioren: Hirur Errege zure adoratzera ethorri zirenak bere herritik Betlehemera, eta berriz handik bere herrira izar eder berri batez gidatu baitzinituen: eta hauken guztion adlerakotzat zeure faborea erakutsi baitzenden, hala egizu eta erakuts ezazu unzi hunen eta hunetan goazinen alderakotzat ere. Badakizu, Iainko handia, ezen gure bizia peril handian uraren gaiñean dabilala, eta salborik ilkitzeko baldin zuk zeure bothereak faboraa ezpagaitzazu, seguranarik ezin dukegula. Fabora gaitzazu bada zeure itzalaren azpian ezar gaitzazu. Inkontru gaitz guztiak gure ganik aldara itzazu. Iguzudenbora ona, emea, eta plazenta, eta egor diazaguzu zure Aingerua gidatzeko, laguntzeko,

gubernatzeko, ta desiratzen dugun portura hel-  
zeko: Gero hunelatan hasi dugun biaje haur kon-  
tentamenduarekin akabaturik, ta geure etxetara  
osasunarekin bihurturik, eman diatzogun zure  
Maiestateari ontasun hautaz guztioz eskerrak  
eta laudorioak, eta bethiere zure zerbitzuan  
enplega gaitezin. Biz hala.

*Gero guztiok elkarrekin errazue, Salbe Regi-  
na latinez, hemen ezarten ditudan orazinoekin.*

## **ARRATSEAN ERRAN BEHAR DENA**

*Goizean bezain ongi arratsean ere bear-  
derautzazue zuek Marinelok zeuen buruak lain-  
koari gomendatu. Halakotz belhauriko iarririk  
eta zeñaturik erran itzazue: Pater Noster; Abe  
Maria, Credo in Deum eta gero zuetarik batek  
erran beza arratseko othoitz haur, goizekoaz  
erran den moldean.*

## **OTHOITZA**

Iainko eternala, zure botherearen indarraz  
eguna eta gaua gizonaren probetxuko kreatu eta  
ordenatu ditzuna, ezar diatzaguzu othoi geure  
arimak eta gorputzak zeure hegalen itzalaren

azpian, eta begira gaitzazu gaurko periletarik. Zu argi eternalaren iguzkia zarena, argi diazaguzu gauazko ilhunbe hunetan: bisita ezazu zure benedizioez unzi hunetan den konpañia haur: khen itzazu gure ganik espiritu gaixtoaren enganamenduaketa zelatak: Zure Aingeru sailduak gurekin egon bitez, eta zu prinzipalki zaude gure aldean gau hunetan, eta begira gaitzazu halako moldez non salborik eta sendorik edireiten garelari bihar goizean, dizkitzugun eskerrak eta laudorioak geure ahal guztiaz. Biz hala.

*Hunen ondoan erraitzue Andre dana Maria-ren Letharinak hemen diren bezala.*

*Eta gero nork bere aldetik erran beza: Angele Dei, eta In Manus, euskaraz hunelaxe:*

Aingeru saildua ene begiratzeko kargua lainkoaren pietatez hartu duzuna, argi diazadazu othoi gau hunetan, goberna nazazu, eta begira gaitzetarik. Biz hala.

Zure eskuetan ezarten eta gomendatzen dut, launa, neure arima: Edukazu nitzaz kontu, nola redemitu bai-nauzu, lainko egiati zarena. Biz hala.

Iainkoak digula gau on. *In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti Amen.*

## **Itsasoan tormenta aitxatzen denean erran behar diren orazinoak**

*Ikus ba-dezazue tormenta ailtxatzen dela itsasoan, iar zaitezte belhauriko, eta erran itzazue Andre dana Mariaren Letharinak, orai berean ezarri ditugun moldean, eta hek akabatu ondoan erran itzazu orazino hauk.*

*Vers.* Post partum Virgo inuiolata permantis-ti.

*Resp.* Dei genitrix intercede pro nobis.

*Vers.* Ora pro nobis Beata Clara.

*Resp.* Ut digni efficiamur promiffionib. Chris-ti.

*Vers.* Saluos fac feruos tuos.

*Resp.* Deus meus sperantes in te

Concede nos famulotuos quaefumus Domine Deus perpetua mentis et corporis sanitate gaudere: et gloriosa Beatae Mariae semper Virginis

intercessione à praesenti liberari tristitia, et aeterna perfrui letitia.

*Eta gero batek apur bat hagitz erran beza othoitz haur.*

## **OTHOITZA**

Iainko guztiz botheretsua, beharrea daudezinak zeure begi pietatezkoaz miratzen dituzuna, enzun ezazu othoi, premia hunetan egiten derautzugun othoitz. Zeure begi miseriakordiazkoak itzul itzazu gure gana, eta zeure botherearen faborea egor diazaguzu herstura handi hunetan. Dakusazun bezala, iauna tormentatuak gara, biziaren galtzeko periletan gaude, eta esperanza guti ahal dukegu tormenta hunetarik salborik ilkitzeko, baldik zuk zeure beso botheretsuaren indarrak atheratzen ezpagaituzu. Eabada, Iainko ona, libra gaitzazu othoi peril hunetarik, hala nola libratu bait-zenduen, Abraham Kaldeanoen eskuetarik, Isaak sakrifikatsetik, Iakob bere anaiaren haserretasunetik, Ioseph bere anaien inbidiatik; Noe dilubioaren uretik, Loth Sodomako sutik, Israelitak Egyptoko gathibutasunetik, Dabid Saulen eta Goliasen bothere-

tik, Susana falso testimoniolik, Daniel lehoiñetik, hirur morroiñak Ananias, Azarias, eta Misael labeko sutik, Ionas balearen sabeletik, londone Petri Erregue Herodesen garzeletik, eta londone Paulo itsas uhinetan hundatzetik. Zuk orduan zeure adiskide hauken alderakotzat erakutsi zenduen zeure botherearen indarra, egizu bada orai gure alderakotzat ere hainbertze. Zure Apostoluek egun batez tormentatuak zebilzanean, gin zuten laster fabore eske zure gana, eta bere hala faboratu zinituen. Huna, launa, nola garen gu ere orai, hek orduan bezala tormenta- tuak, eta hek bezala zure ganatzen gara, oihuz gagozkitzu erraiten deratzugu: Salba gaitzazu, launa, zeren bertzela hondatzera goazi. Geldi itzazi haizeak, sosega itzazu uhinak, argi itzazu hedoiak, klara ezazu denbora, eder ezazu itsa- soa, desegin ezazu espiritu gaixtoaren indarra, erakuts diazaguzu zeruko argia, khien diazaguzu bihotzeko tristura, eta alegera gaitzazu zeure konsolamenduz. Orhoituko gara fabore hunetzaz bizi garen egunetan, eta eskerrak emanen derauzkitzugu geure ahal guztiaz.



Eta zuri ere minza nakizun Birjina saindua gure Salbatzaillearen ama, orai da ordua: Zu zara otsasoko izarra, eta beharrean daudenen faboratzaille handia: hel zakizkigu bada, othoi, herstura handi hunetan, zaren ararteko on, ardiets diazaguzu tormenta hunen sosegua, eta peril hunetarik libratzeko garazia. Biz hala.

*Hauken ondoan iduritzen ba-zaitzue erran ahal dezakezue: Salbe Regina, edo zenbait bertze orazino plazer dukezuenetarik.*

FINA